



# ttipi-ttapa

TOPIKUM

2014ko ekainaren 26a | XXXIV. urtea | 617. zenbakia

www.ttipi.net



## Herriko bestak

Lesaka, Azpilkueta

### BERA -> 19

Iturlandetako tanatorioak eztabaida sortu du

### DONEZTEBE -> 26

Anasaps-Dizdira elkarteak 10 urte herrian

### GOIZUETA -> 33

Gimnasioa ireki du Behekolandan Udalak

### BAZTAN -> 39

'Bestetako otordueta bertako gaiak' ekimena



## UDAKO BESTAK

Urteko egunik luzeenei eta gau-giro gozoei etekina ateratzeko prest daude gure bazterrak. Herriko besten tenorean gaude. Argazkian Lesakako Landazelaiak Sanferminetan.

**BOLUNTARIO TALDEAK** | Gizarteko beharrei erantzuten

## Zuretik eman bueltan jasotzeko

«Boluntarioak ez gaude lana inori kentzeko» erran digute hasiera hasieratik. Ekonomikoki egoera zaila dutenei edota bazterketa sozial arriskuan daudenei, bertzela eskuratu ezinen luketen zerbitzu bat ematea da boluntarioen helburua. Gainera, Gizarte Zerbitzuekin etengabeko kontaktuan egon ohi dira, egiten duten boluntario-lanak ikuspuntu profesionala ere izan dezan.

ERREPORTAJEA -> 3-5



### Julen Retegi buruz buruko finalean

Ezkurdia, Olaizola eta Idoateri irabazi ondotik, Irujo izanen du arerio Retegi Bik igande honetan Donostiako Atano III.an jokatu den final haundian. -> 32

### HAUR ESKOLAK -> 25 Finantziario hitzarmena

Haur Hezkuntza zentroak dituzten 20 udaletako ordezkariak zentro hauek finantziatzeko hitzarmen bateratua adostu dute eta Nafarroako Gobernuan aurkeztu.

### Pirinioetako ekintzaileentzat diru-laguntzak

Udalbiltzak seina mila euroko diru-laguntza emanen die Pirinioetan lan eta bizi programaren barnean onuradun hautatu dituen 19 proiektuari. -> 38

### ZOKKETAK -> 52



ttipi txartela eginez gero 2 liburu opari

Txartela egiteko deitu  
948 635 458 telefonon

# LIDERRAK GURE ESKUALDEAN

eta baita azterketa  
egiterakoan CIESeK

## Nafarroa Garaiko mendialdean

hartu duen 111 udalerrien  
eremuan ere



ttipi-ttapa

Ttipi-Ttapa<sup>rekin</sup> zure iragarkiak  
eragin haundiagoa du

### TTIPI-TTAPA 28.000 irakurle

- D. NOTICIAS 17.000 irakurle
- D. NAVARRA 11.000 irakurle
- GARA 9.000 irakurle
- MARCA 4.000 irakurle
- BERRIA 2.000 irakurle
- EL PAIS 1.000 irakurle
- EL MUNDO 1.000 irakurle
- BESTE BATZUK 8.000 irakurle

#### Sexuaren arabera

GIZONAK %40,20  
EMAKUMEAK %59,80


#### Adinaren arabera

14-24 urte %13,50  
25-34 urte %16,70  
35-44 urte %18,50  
45-54 urte %21,30  
55-64 urte %11,80  
+ 64 urte %18,20

#### Ikasketa mailaren arabera

IKASKETARIK GABE %4,90  
LEHEN IKASKETAK %9,80  
LANRIDE HEZIKETA %24,30  
BATXILENGOA %34,60  
UNIBERTSITATEA %26,50

Data iturria:  
CIES 2014ko 1. inbentarioa







ARGAZKIA: JOKIN APEZETXEA  
Maritxu Elkarriztan taldeko boluntarioa da eta  
asteartero joaten da Zahar Etxera Migel bisitatza.

GIZARTEA → BOLUNTARIO GEHIAGO ERAKARRI NAHI DITUZTE

## Laguntza eskainiz, irribarreen truke

Gizarteko beharrei erantzuteko ezinbertzeko lanabesak dira eskualdeko boluntario taldeak

Euren denbora jartzen dute bertze-  
en eskura, trukean irabazi ekono-  
mikorik jaso gabe. Laguntasuna,  
laguntza... eskaintzen dute eta hala,  
bertzeak bertze paseorako lagun,

irakasle edota auto gidari bihurtzen  
dira. Eskualdean, bi taldetan biltzen  
dira boluntarioak, TTIPI-TTAPA  
beraiekin bildu da eskaintzen duten  
zerbitzua ezagutzeko.

### Eneritz IRAOLA

Boluntario izenak ar-  
gi adierazten du, boron-  
datea dela gakoa, se-  
gundoak kontatuz ga-  
biltzan garaian minutu-  
ak oparitzen baitituzte.  
Oparitu edo partekatu,  
«eman adina jasotzen  
dugu boluntarioek bu-  
eltan» aipatu digute El-  
karriztan eta Bidelagun  
Boluntario taldeetako

kideek. Eskualde mai-  
lan modu partikularre-  
an boluntario aritzen di-  
renak bat baino gehia-  
go izan arren, bi hauek  
dira talde egitura dute-  
nak.

### BIDELAGUN

Bidelagun Elkarte-  
an biltzen dira Baztan, Ma-  
llerreka eta Bertizarana-  
ko boluntarioak eta da-

goeneko 15 urte dara-  
matzate lanean «1999an  
Baztanen bildutako  
boskote batek paratu  
genuen martxan. Gehi-  
enbat adineko jendea-  
ren inguruan zerbait egi-  
teko beharra ikusi ge-  
nuelako» azaldu digu  
Isidro Herguedasek, Bi-  
delagun taldeko ardu-  
radunak. Gerora, pixka-  
naka beste behar ba-

tzuk sortzen joan dire-  
la azaldu digu eta hauei  
ahal den neurrian eran-  
tzuteko zerbitzua osa-  
tu dutela.

### ELKARRIZAN

Elkarriztan taldearen  
oinarria berriz, 2008an  
sortu zen Beran, berta-  
ko Udalak bultzatuta bo-  
luntario talde bat osatu  
zutenean. «Martxan ha-  
si ziren baina denbora-  
rekin zerbitzua indarra  
galtzen ari zela ikusi zu-  
ten. Bortzirietako Giza-  
te Zerbitzuengana eto-  
rri ziren orduan taldea  
indartu eta koordina-  
tzeko laguntza eske» ai-  
patu digu Jokin Ape-  
zetxeak, Bortzirietako  
Gizarte Zerbitzu-  
etako Langileak. Gizarte Zer-  
bitzuekin elkarlanean ari  
dira geroztik eta hala,  
boluntario taldeari be-  
harrezko bultzada eman  
eta 2012an Lesakara za-  
baldu zuten zerbitzua.  
Gaur egun Bortzirietan  
egiten dute lan «baina  
boluntario gehienak Le-  
saka eta Berakoak di-

### KONPAINIA

«Bertzeari laguntasu-  
na eskaintzea,  
entzutea, bere alboan  
norbait duela  
sentiaraztea... da  
aunitzetan konponbi-  
dea, gizarte honetako  
arazo larrienetakoa  
bakardadea baita»

### Jokin APEZETXEA

Bortzirietako Gizarte  
Zerbitzu-  
etako Langilea

### KONPAINIA

«Boluntarioak ez  
gaude beste inori lana  
kentzeko, dohainik  
egiten dugu egiten  
dugun guztia.  
Pertsona jakin batzuei  
bertzenaz eskuratzetik  
ez duten zerbitzu bat  
eskaintzea da gure  
helburua»

### Isidro HERGUEDAS

Bidelagun Elkarte-  
ko  
Arduraduna



ARGAZKIA: ALFONSO OBESO  
Elkarrizan taldeko boluntarioek koordinazio bilerak egiten dituzte Gizarte Zerbitzuetako langileekin hilean behin.

#### ELKARRIZANEKO KIDE IZATEKO

- [ssb@lesaka.net](mailto:ssb@lesaka.net)
- 948 635 036
- Etxalarko egoitzan
- Besta egunetan jartzen dituzten informazio postuetan

**Ospitalelan laguntza** ere eskaintzen dute bi elkarteek. Sare familiar bat ez dagoen kasuetan boluntarioek betetzen dute laguntzaile-papera eta kontsultara lagundu edo ingresoetan konpainia egiten diete. «Gertatzen da aunitz euskaldunak diren adinekoekin, arrotza den ingurune batean egon eta gainera euskaraz hitz egiten ez duen batekin tokatzea. Kasu horietan lasaitasun handia ematen diete norbait ondoran izateko» aipatu digu Apezetxeak.

**Aspace**koekin ere elkartzeko dira Bortzirietako boluntarioak, abestu eta dantzatzu ederki pasatzeko.

**Jubiloteka** zerbitzua ere eskaintzen dute Beran eta bertan eskulana egin eta kantuan ere aritzen dira. Bertara joateko, **garraio zerbitzua** ere antolatu dute. Bo-

ra» aitortu digu Jokin Apezetxeak.

#### BOLUNTARIOEN PERFLA

Gazteen artean pixkanaka hedatzen doan arren, jende adintua eta erretiroa hartua dutenak dira orokorrean boluntario aritzen direnak. Historikoki emakumezkoak ziren gehienak, baina badirudi arlo horretan aldaketa gertatzen ari dela pixkanaka «gizonezkoek ez al dakigu zaintzen edo? Ez gara gai? galdetzen hasi zen jendea, esker-arrak mentalitate aldaketa hau gertatu den» dio Apezetxeak. Herguedasek ere aldaketa hori gertatzen ari dela dio baina gaineratzen du «oraindik badela zereginak». Bi elkarteek zabaldu nahi dute boluntarioen sarea, eskaintzen duten zerbitzua sendoa goa izateko. Horregatik, «denbora librean izan

eta laguntzeko borondatea duten guztiei boluntario izateko» deia luzatzen diete bi taldeetako kideek. «Behar sozialei erantzun bat eman eta norbere burua betetzeko, aberasteko modua da» gaineratzen dute. Aitziber Esnaolak ere, Elkarrizan taldeko kide gazteenetakoak azpimarratzen du «aunitz ikasten» ari dela esperientzia honetatik.

Interesa dutenek elkarteekin harremanetan jarri eta eskaini nahi duten zerbitzua zein den aipatu beharko dute. Elkarteak izanen dira gero

beraiekin harremanetan jarriko direnak, bien artean zerbitzua zehazteko.

#### ESKAITZA ZABALA

Boluntarioek eskaintzen duten zerbitzurik ezagunena **adinekoek zuzendutakoa** da eta eskualdean ere hauxe da indar gehien duena. Elkarrizan boluntario taldekoak Berako eta Lesakako Adineko Egoitzetara joan ohi dira bisitan. Asteartero Lesakako adinekoek paseora laguntzen diete eta Berako Adineko Egoitzara bisitan joateaz gain, kan-

tu zaharrak abesten ere egoten dira elkarrekin ordezgunetan. Bidelagun boluntario taldekoak bertalde, Elizondoko San Francisco Javier eta Benito Mennin daudekin elkartu ohi dira.

Horretaz gain, autonomia puntu bat dutenen etxetara ere joaten dira, beraiekin egon eta, hala, jarraipen bat egiten diete. Izan ere, Jokin Apezetxeak erran digutenez «gizarteko egoerak biltzen dituzten begiak dira boluntarioak, etxetan laguntza eskaini eta egon litezkeen beharrak ikusten dituztenak».



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO  
Bidelagun elkartearen boluntarioak antolatutako formazio saioetako batean.

#### BIDELAGUNEKO KIDE IZATEKO

- [www.bidelagun.org](http://www.bidelagun.org)
- 948 581 327
- 679 435 174
- [bidelagun@hotmail.com](mailto:bidelagun@hotmail.com)
- Elizondoko egoitzan



luntarioak dira astelehen, asteazken eta ortziraletan lesakarrak Berara eramateaz arduratzten direnak, Aspacekoek uzten dieten furgonetan.

**Helduen alfabetizazioa** da boluntarioen lanaren bertze ardatzetaiko bat. Etorkinen integrazioa lortzeko, «tresna oso baliagarria bihurtu da gurean» dio Isidro «harrera egiten diegu, alfabetizazio kanpaina bat jartzen dugu martxan, bidea erraztu nahi diegu» azaldu digu. Malerrekan, gaztelania ikasteko talde bat orain sortzeaz daudela ere erran digu. Bortzietan urteak dira zerbitzu hau martxan paratu zela eta zegoen behar bati irtenbidea eman zioten horrela, «euskara ikasi nahi zutenak Euskara Mankomunitatera bideratzen genituen, baina gaztelaraz ikasi nahi bazuten aukerarik ez zutela nabaritu genuen, astean ordu eta erdiz klaseak ematen dizkieten boluntarioak topatu genituen, garai

### BOLUNTARIOEN ESKUBIDEAK

- Boluntarioki, **modu librean** eskaintzen duten zerbitzua da eta **beraiek erabakiko** dute zerbitzuaren maiztasuna eta iraupena.
- Behar dituzten **argibideak, prestakuntza, orientazioa, laguntza** eta, hala behar izanez gero, **baliabide material** guztiak jasotzea.
- Boluntariotzan aritzeagatik gerta litezkeen **istripu eta eritasun arriskuen kontrako aseguruak** izatea.
- Beren beharretan sortutako **gastuak kobratzea** (kilometrajea).

batean irakasle izanda-koak edo bertzerik gabe irakasteko nahia zutenak».

**Eskola laguntza edo klase partikularrak** ere eskaintzen dituzte abuztuan. Astearte eta ortzegunetan, ordu eta erdiz elizak utzitako gela batean biltzen dira Lesakan zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleei laguntza eskaintzeko.

Horretaz gain, gizarte osoari zuzendutako zerbitzuak ere paratu dituzte martxan Bidelagunekoek. **Bigarren esku-ko arropa biltegi** bat eta **lan poltsa** bat osatu dituzte eta bertan ere, bo-

luntarioak ari dira lanean.

### ZERBITZUA DA, EZ LANA

«Boluntarioak ez gaudela inori kentzeko» erran digute hasiera hasieratik. Uste okerre segika, behin baino gehiagotan «nahasi izan da zaintzailearen paperarekin edo zerbitzu hauek eskaintzen dituzten profesionalei kalte egiten diegula erran izan dute. Baina guk ez dugu irabazi ekonomikorik lortzen eta eskaintzen duguna aldi bateko konpainia edo zerbitzu bat da». Ekonomikoki egoera zaila dutenei edota

### BOLUNTARIOEN BETEBEHARRAK

- Boluntario taldearekin hartutako **konpromisoak bete** eta taldearen **helburuak eta araudia errespetatzea**.
- Eskaintzen duten zerbitzuagatik edozein **kontraprestazio material** uko egitea: dohainik eskaintzen dute beren denbora.
- Zerbitzua jasotzen duenaren **borondatea eta konfidentzialtasuna errespetatzea**.
- Ahalik eta **zerbitzu profesionalena** eskaintzea, horretarako eskaintzen diren **formazio saioetan aktiboki** parte hartuz.


bazterketa sozial arriskuan daudenei, bertze la eskuratu ezinen luke ten zerbitzu bat ematea da boluntarioen helburua. Gainera, Gizarte Zerbitzuekin etengabeko kontaktuan egon ohi dira, zerbitzua ikuskatzeko «mugak daude, eta horiek argi eduki behar dira. Edozein arazoren aitzinean gizarte zerbitzuengana jo behar dugu». Ikuspuntu profesional bat izaten jakin behar dute boluntarioek «pisu emozional handia du egiten dugunak eta prest egon behar dugu egoera desberdinetan nola jokatu jakiteko».

### HARTU EMAN ESTUA

Boluntariotzari esker, «bertzela ezagutuko ez nukeen jendearekin harremanetan nago» aipatu digute. Adin, sexu eta jatorri desberdinetako pertsonak lotzen ditu boluntariotzak. Bata bertzearen errutinen parte bihurtzen dira eta harreman «estuak» sortzen dira.

Guztiekin bat egiten dute aipatzean eskaintzen duten denbora, ez dela galdutako denbora, irabazitakoa baizik, «nabari duzun esker onak barrua bete eta ongi sentiarazten zaituelako».


### ELKARRIZAN ETA BIDELAGUN TALDEETAKO BOLUNTARIOEKIN SOLASEAN



**IRAKATSI ETA IKASI**

«Oso aberasgarria da besteei zerbait irakasten saiatu eta aurrerapausoak nola ematen dituzten ikustea»

Elina RODRÍGUEZ  
Bidelaguneko boluntarioa  
Helduen alfabetizazioan



**BEHARREI ERANTZUN**

«Laguntza beharra zegoela nabaritu nuen eta aukera nuenez, nire esku zegoena egitea erabaki nuen»

Maritxu GAGO  
Elkarrizan taldeko boluntarioa  
Helduei laguntasuna eskaini



**GAZTEOK ERE BAI**

«Gazteok ere boluntario izan eta gure denbora libre besteei eskainita, aunitz dugu ikasteko»


Aitziber ESNAOLA  
Elkarrizan taldeko boluntarioa  
Jubilotea eta ASPACekin



**JENDEA EZAGUTU**

«Bertzela jasoko ez luketen zerbitzua eskaintzen dugu eta harreman sozial berriak sortzen dira»

Santi MAYA  
Elkarrizan taldeko boluntarioa  
Jubiloteako garraiolaria



**BIKOITZA JASO**

«Denbora eskaini ez, konpartitu egiten dugu. Guretik bi eman eta lau jasotzen ditugu bueltan»

Joxe Mari IRAZOKI  
Elkarrizan taldeko boluntarioa  
Helduen alfabetizazioa



**Nire txanda**  
Zuriñe ZUBILLAGA

## Zirkuan harrapatuak

**Z**irkuan bizi gara. Normalean zirkuetan artistak topatu ohi ditugu: pailazoak, trapezistak, akrobatak, domatzaileak. Baina geurea zirkua atipikoa da. Geurea herrenez beteriko zirkua da. Trapezista, domatzaile eta mago bakar batzuekin topo egin dezakegun arren, gehienak herrenak dira. Hala da. Batzuk herrenak dira hankamotz direlako; besteak ordea, herrenka dabilta itsu direlako. Urrutitik begiratuko bagenu; hau da, zirkutik kanpo, herrenak ikusiko genituzke baina bestearen aurka estropezu egiten, jendea lurrera botatzen edo besterik gabe lurrera erortzen. Bada ere, herrena izanik herrentasuna estaltzen saiatzen denik, edo herrena dela ez dakienik, eta trapezistaren pare dabilta alde batetik bestera. Kontua da halakoxea dela mundua, eta kontu handiz egin behar dugula aurrera herren batekin tupust ez egiteko, edo besterik gabe lurraren aurka muturrak ez hausteko. Azken finean, ahalik eta min gutxien hartu eta eragiteko.

«Baina geurea zirkua atipikoa da. Geurea herrenez beteriko zirkua da»

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Altza Felipe trulalai!!


**H**orixe bakarrik falta genuen! Felipe VI errege izendatzerakoan galtza piratak eta txanklak janzea militar trajea jantzi beharrean. Edo Espainiako himnoa jarri ordez Txirri, Mirri eta Txiribiton *Altza Felipe trulalai* kantari jartzea. Printzipe eta haden zein ipuinetan ageri da hori? Eta Leonor alabatxoak? Astean 1.970 euroko pagarekin, zenbat ipuin, kromo edo piruleta erosten ahal ditu?

## Nabarmentzekoak



Juainas PAUL ARZAK  
Liburutegia dohaintzan

Bere liburutegi pribatuko 1.600 ale baino gehiago eman dizkio zubiarrak Nafarroako Gobernuari dohaintzan. Azken hamarkadetan egindako ikerketa-lanen emaitza da.



Fernando ETXEGARAI  
Hamaseigarrena Nafarroan

1995ean lortu zuen Nafarroako koxkor biltze txapelketa lehen aldiz eta geroztik, aurkeztu den guzietan lortu du. Bigarren izan zen Joseba Larralderekin batera ariko da Euskal Herrikoan.



Mikel ORONÓZ  
Euskal dantzak Katalunian

Aurrera dantza taldeko leitzarraren ekimenez, euskal dantza erakustaldia eskaini zuten Manresa Fundació Universitaria del Bageseko kanpusean. Mikel Alkoz leitzarrak jo zuen txistua.

Atzera begira → 2004-VII-1 / TTPI-TTAPA 377 zk.



### Mixel Urbistondo saratarra 40 urte harriaren arima azaleratzen

Sarako Kaikueneako Mixel Urbistondok 40 urte bete zituen hargin lanean duela hamar urte, «harriaren arima azaleratzen». Aitarekin ikasi zuena semeari ere irakatsi zion, belaunaldi arteko zubi lana eginez. «Etxearen izenarengatik eza gutzen da jendea eta guk harriz ezartzen dugu», zioen harro. Harginarena ez zitzaion lanbide zala iduritzen, baina lan onaren sekretua pazientzia dela aipatu zigun Mixel Kaikuk: «Baditut harriak presaka egiten hasi eta xehetuak. Presaka ez da behin ere gauza onik egiten. Lanari behar zaio utzi bere denbora. Bere osotasunean behar du gizona lanera eman».



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Iruña eta Itxaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraalde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz

**Fundazioaren Presidente** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administratzailea** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

**2013ko harpidetza sariak**

|                    |             |                       |             |                                |          |
|--------------------|-------------|-----------------------|-------------|--------------------------------|----------|
| Hego Euskal Herria | .....40€    | Europa                | .....59,50€ | Baztan, Urdazubi eta Malerreka | .....34€ |
| Ipar Euskal Herria | .....59,50€ | Amerika eta Australia | .....124€   | Leitza                         | .....17€ |



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara  
Mankomunitateak diruz lagundua

## Kolaborazioak

### Zoazte Jaunaren pakean

Joseba URROTZ

**E**skerrak Jaungoikoari! Eta horrelaxe akitzen da meza, pakean joaten ahal garenaren lasaitasunarekin, betebeharra kunplituta.

Orain dela gutti, bi lagun entzun nituen euren herriko apezarendako ari zirela, sermonetan erraten dituen gauzengatik asaldatu samarrak.

Meza liturgia bat da, eta liturgia horren barrenean Liburu Santuko irakurgai batzuk irakurtzen dira, non Itun Zaharreko eta Itun Berriko kontakizunak agertzen diren, aspaldiko kontuak, portzierto. Eta normalean Ebanjelioaren inguruan, apezak predikua egiten du. Hau ez da berria, baina akaso batzuk ez dira konturatu izanen, erran bezala, meza erritual bat denez, automatikoki egiten dira gauzak eta aunitzetan ez gara konturatzen zertan ari garen.

Jendearen haserrera itzuliz, maiz entzun izan dut apeza kritikatzeko, politika gaitan sartu delakoz (batez ere abertzaletasunaren alde egiten badu) edo azkeneko entzun nuena, abortoari buruz zioenarengatik.

Ikasi dut lau prediko mota izaten ahal direla: dogmak, misterioak, erlijio ariketak eta moralari buruzkoak. Ba ematen du elizara joaten den jendek nahiago duela apeza misterioei buruz ulertzen ez diren gauza abstraktoei buruz aritzea, edo dogmei buruz (horiek ere batzutan ulerkaitzak) ze, hurbilago ditugun gauzetan sartzen bada, alegia, politika, ustelkeria, nazionalismoa, ekonomia, gizarte ezberdintasunak, eta abar, sermoiko lozorrotik ernatzen gaitu eta ezin gara Jaunaren pakean joan etxera, arraioa! Zeri buruz nahi duzue ba aritzea, aingeruen sexuari buruz? Hirutasun santua nola ulertu daitekeen?

Nork uste duzue atxilotu, epaitu eta hil zuela Kristo? Konturatu al zarete urtetan mezara joan zaretenak? Ba ebanjelioan bertan dio: orduko politikari, apaiz, epaile, eta poliziek. Eta zergatik uste duzue? Atera kontuak, zer erran eta egin ote zuen, haiek denak kontran izateko eta lapurren artean gurutzean hiltzeko.

Ez dut erranen apeza guziak Kristoren pareko aritzen direnik, denetarik dago gizakiak direnez, baina meza kontzientziak eta gizartea astintzeko eta gure barreneko mixeriak eta altxorrek ikusteko balio ezpadu, zertarako balio du?

Hala bedi.

«Hurbilago ditugun gauzetan sartzen bada, alegia, politika, ustelkeria, nazionalismoa, ekonomia, gizarte ezberdintasuna... sermoiko lozorrotik ernatzen gaitu eta ezin gara Jaunaren pakean joan etxera, arraioa!»

### Edozein edari alkoholdu edan baino lehen jakin beharrekoa

J. Manuel PEREZ ECHARRI (Malerrekako Osasun Zent.)

**E**dozein edari alkoholdu edan baino lehen jakin beharrekoa:

- Hasieran desinbitu eta euforia sortu eta guk pizgarri batekin nahasi arren, alkoholak gure nerbio sistemaren funtzionamendua mantsotu egiten du.

- Alkoholdu edariak honako hauek dira:
  - Hartzituak: ardoa, garagardoa, sagardoa ... 4 eta 15 gradu artean dituzte.
  - Destilatuak: patxarana, ron, ginebra, whiskia ... : 40 eta 50 gradu artean dituzte.

- Edan den kantitatea, duen graduazioa, eta edan duenaren ezaugarriaren arabera izanen da alkoholaren ondorioa.

Pisu txikiko jendeari (emakume asko, adibidez) edota adin txikikoei, gizenegi edo helduei baino kalte gehiago egiten die.

- Baraurik egon eta denbora laburrean edanez gero, zenbat eta alkohol gehiago edan, orduan eta posibilitate gehiago dago intoxikazio etilikoa, koma edota heriotzara ere ailegatzeko.

- Alkohola bertze substantzi batzuekin (lasaigarriak, cannabis,...) nahasiz gero, ondorio ezberdinak paira daitezke: lasaigarrien kasuan haien eragina handitu egiten da; kokainaren kasuan, aldiz, banaka hartuta baino toxizidade gehiago sortzen du.

- Bestalde, alkoholak gidatzean jarritako atentzioa murrizten du, baita ikusmen eta entzumen gaitasunak ere.

Errepideetan dauden istripuen %30-50 alkoholaren ondorioz sortutakoak dira.

Edari alkoholduen eraginpean gidatzea da 15 eta 19 urte bitarteko gazteen heriotzen zergati nagusia, MOE-ren arabera.

«Alkoholak gidatzean jarritako atentzioa murrizten du, baita ikusmen eta entzumen gaitasunak ere. Errepideetan dauden istripuen %30-50 alkoholaren ondorioz sortutakoak dira»

- Denbora luzez alkohol gehiegi edateak zenbait eritasun sor ditzake; gibelaren minbizia, dementsia, eta depresioa barne. Baita familia eta lan arazoak ere.

Hori dena jakinik, alkohola neurritz edan edota alde batera utz ezazu.

ZAINDU ZAITEZ!



**Irakurleak mintzo****Guztiok  
elkartearen  
eskertza**Maitetxu LEONIS (Guztiok  
Elkartearen izenean)

Amets bat egi bihurtzen denean ez da beti hori aitzinera ateratzeko egiten dugun eginalaren emaitza izaten. Amets guztien gibelean beti daude babesten gaituzten eta guregan sinesten duten pertsonak. Ez dira edozein, bereziak dira, gure proiektuekin aitzinera segitzera animatzen gaituztenak, modu batera eta bertzera beraien elkartasuna adierazten digutenak.

Hitz hauekin bihotzez eskertu nahi dizuegu maitasunez antolatzen nuten jaialdi hunkigarri harengatik. Eskualdean Guztiok aurkezteko aukera eman diguzue.

Eskerrik asko!

**Izatezko bikotea  
alargundua**

Inma DANBORIENA (BERA)

Nik igorritako gutun honek gertaera tamalgarri baten berri emateko helburua du, eta ahal bada egoera berean suerta litekeenak ez dezan nire lagunak bezainbertzeaz sufritu.

Orain dela urte bat nire lagun bat minbiziaz jota gertatu eta hila bete baten buruan hil egin zen. Zendu zenak bikotekidea bazuen,

baina beren egoera zibil eta legala "izatezko bikote" deritzona bertzerik ez zen. Kontua da, inolako testamenturik ez izateak, eta ondasunak nahiz aseguruak kobratzeko, batere eskubiderik gabe utzi duela haren alarguna den nire laguna.

Beraz, nire laguna dena; hau da, alarguna, deus gabe geratu da eta gainera legeak elkarrekin bizi ziren etxea uztera ere behartzen du.

Ez naiz sobera jakitun seme-alabak izanez gero zer gertatzen den, baina, mesedez, nire lagunaren egoera berberean izanez gero, ikasi nola dauden legeak, zer dioten, eta ahal bada egoera arautu; izan ere, instant batean bizitza honetan dena izatetik deus ez izatera pasatzen ahal baitzara.

Ahaztu gabe! Nire lagunari inork baino gehiago maite izan zuenarekin bizi izandako 10 urteak ez dizkio inork kenduko. Animo mai-

**Saldiasko  
programan  
akatsa**

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA

Aitzineko alean, Saldiasko besten programan akatsa joan zen: Zikiro-jatea sartu genuen ekainaren 21ean, Udalaren programa ofizialean horrelakorik ageri ez zenean. Barkatu eragozpenak.

**Bota bertsoa**

Julen ZELAIETA

**Baztan-Bidasoko XXVII. Bertsopaper  
lehiaketan lehen saria (18 urtetik goiti)****Doinua: Esperantzarik gabeko zenbait****Oroitzat soil bat**

Pare bat urte pasa ondok sentipenekin borrokan, berriz burua altxatu eta pasa zaidana gogotan, iraganeko mamuei aurre egin nahi diedan hontan, ispiluari begira jarri eta hasi naiz bertotan, oroitzapenak nere parean lurrunarazi asmotan.

Hogeita zortzi urte nituen, baina oraindik "umea". Zure iritzi, heldu omen zen alde egiteko umea. Tamalez, ez zen "agur" bat edo "gero arte" bat xumea. Nahiz ta denboran itzaltzen joan den orduko begirunea, urrundik ere nabarmena da utzitako hutsunea.

Noski, nik ere badut errurik; hau, aitor dezaket lasai. Gure harremana indarra galdut zihoan garairik garai. Zetorkidanaz ohartarazten saiatu zinen, nolanahi. Behar zintudan, ta behar hori bazen bat itsutzeko gai; Zuk argi utzi zenidan baina nik ez nuen sinetsi nahi

Bizitza zure babesik gabe ez nezakeen imajina. Gainera erru-sentimendua hain zen barneraezina,...! Jende aurrean izan zintezan ederra ta atsegina, aunitan mugak jarri nizkizun (halabeharrez, jakina). Ez nuen uste izango zenik ospa egiteko adina.

Nere eskuak buru gainera bota nituen orduan, laguntzeko prest agertu zenik izan nuen inguruan. Baina guztiak ez zitzaizkidan hurbiltzen lagun moduan; mesprextatua sentitu nintzen hilabeteen buruan; ikasi nuen jende gaiztoa ere badela munduan.

Denek zekiten ze pasatu zen zu eta nere artean. Bazirudien kartel haundi bat nuela goiko partean. Frakasatuak, bigarren mailan gaude gaurko gizartean. Behin eta berriz erran zenidan, ni lasaitu bitartean, ta sinesten dut, hirugarrenik ez zegoela tartean.

Zergatik niri, zergatik orain,... zenbat duda nerekin; kezka, beldurra ta konplejuak malkotan nituen ito. Aitak aunitan erraten zidan: "seme, deus ez da betiko". Kosta zait baina, onartu baitut ez zarela itzuliko, pena pixka bat badaukat baina ez naiz negarrez hasiko.

Baina urtetan bizitakoak orainik pentsamendutan. Gelan, tabernan, parkean, dendan, ia edozein lekutan, zu ferekatzen zintudan eta kilikak behatzen puntan!... pentsatze hutsez, beheraldiak izaten ditut batzutan, faltan botatzen zaitudalako horrelako momentutan.

Zorion bila, barruko mina hustutzearen harira, denbora, bere lana eginez, gaitza sendatzen ari da. Hala ere, zu guztiz a(ha)nztea ezinezkoa da,...tira! Zuk hemen utzi ninduzun baina jarritz atzera begira, zure inguruan zebiltzan batzuk nerekin gelditu dira.

Zainduko ditut, beraiek ere ez dezaten egin alde. (Momentuz ez da inor kexatu, nerekin gustora daude) Bizitza berez ederra da ta, bertan dudaren jabe, Alferrik nago triste, beldurrez, ezkor, uzkur ta herabe, ni le(he)ngo bera izango bait naiz zurekin edo zu gabe.

Oroitzat soil bat zara niretzat agur "flekillo" maitea, ziklo berri bat hastear dela onartu eta pakea! Ez dut berriro ere utziko ohea ilez betea, ez dut le(he)n bezain sarri aldatu beharko txanpu-potea,... azken finean, ez da drama bat burusoila izatea!

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57



## Prentsatik bildutakoak



«Kulturalki erraldoi eta buruhandiek erranahi haundia dute eta horregatik, horrekin zerikusia duten gauzak ekarri ditut erakusketara».  
«Bidasoaldea lurralde berezia da eta hemengoa izateak bizi osorako markatzen zaitu. Eguraldiak ere karakterra ematen du eta lienzoan adierazten dituzun sentimenduak ez dira hegoaldeko baten berdinak».

**Gabriel UNSION**

Berako artista  
D. NAVARRA 2014.06.16



«Margoketa figuratibotik abstraktorako jauzia egin dut, nere artea modu ezberdin batean adierazteko asmoarekin. Estilo honetan ongi sentitzen naiz. Modu librean margotzea gustatzen zait eta koadro figuratiboak egiten nituenean ez nuen hainbortze irrikatzen nuen askatasuna topatzen. Koloreak hagitz garrantzitsuak dira, funtsezkoak»

**Oaia PERUARENA**

Berako margolaria  
D. NAVARRA 2014.06.16

## 11 galdera labur

### Nor dugu Josune Irungarai?

Azpilketako neska alai, lagunaren lagun eta gauz txar bat erratekotan kaxkar xamarra.

### Zer du Apaioa auzoak, Azpilketako beste auzoak ez dutena?

Auzokideen arteko giro ona, etxe batetik bestera beldurrik gabe hizeketan aritzen gara eta beti elkarri laguntzeko prest egoten gara.

### Zein afizio dituzu?

Musika entzutea, oinez bueltatxo batzuk ematea eta nire lagun eta 3 ilobekin egotea.

### Administraria lanbidez eta ardiak zaintzen ere aritzen omen zara...

Administrari ikasketak egin eta horretan ari naiz gustura lanean, baina etxean ardietatik bizi garenez pixket lagundu beharra dago, obli-gazioz bada ere...

### Bestazale fama ere baduzu...

Orain gaztea naizela aprobetxatu beharko dut ez?

### Zerk egiten ditu berezi Azpilketako bestak?

Herritarren artean sortzen den xarmak. Guriak baino herrikoia goak diren besta guti dire; haurrak, gazteak eta helduak, denak elkarrekin egoten gara...

### Zein da zuretzat bestetako egunik bereziena?

Baztan Zopak, bestako ilusio eta

gogoz beteak egoten garelako eta Zikiro jate eguna giro politean pasatzen dugulako.

### Eta ekitaldirik gustukoena?

Gure artean gauza dextente egiten ditugu, fronteniseko txapelketa, Zuetan gazteek egiten dugun bazkaria eta jokuak adibidez. Bat aukeratzea zaila da!

### Frontenis txapelketarako nahi-koa entrenatu zarete?

Azken egunetan entrenatzen dugu gehienek. Taktikarik ez dut, hiru aldiz finalean egon naiz eta ez dut oraindik txapelik lortu.

### Zein da damunausien papera?

Bi damunausiek besta guztiak antolatzen dituzte, herri ttikie izan arren lan nahikoa izaten da. Hurrengo urtean, ez dut ustelibretiko naizenik.

### Amets bat?

Ingurukoek lana eta osasuna izatea.



**Josune IRUNGARAI → Azpilketako gaztea**

**PPSOE,**  
Euskal  
Telebista  
digitala  
**Nafarroan**  
orain!  
Berria erosi taldea

**ERREKALDE**  
PATER KONTAKTUA  
PATERAK  
KONTAKTUA  
TFAHA: 948 630 254 BERA

**J. RAMOS**  
zolak akutxilatuta eta  
barnizatzen ditudat  
Sakelekoak: 637 836 023 - LESAKA

**zalain**  
JATETxea, RESTAURANTE  
Zalain Auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
www.zalainjatebisa.com

**BORTZIRAK**  
**PASATU DENDATIK eta IKUSI !!!**  
**Philips Lumea**  
Philips Lumea Comfort IPL sistema laguntza eraginkorra da aurpegiaren eta gorputzean ilea berri-berri erretzeko gaitasuna duena. Sistema honek erabiltzen dituen argi-pulsoak argi-energiaren bidez maitasun jakin batekin erabiltzen dira, hiru-aurpegiaren mantentzeko dira.  
**199€ 4 hilabetez PROBATU dezakezu!**  
Bidasoa, 45. 31780 Bera. 948 630377. 948 631091. info@bortzirak.com. www.bortzirak.com

**ERROTAZAR**  
**harategia**  
Bertako produktua  
Etegarra, 3 - BERA  
Tel/Faxa: 948 630 088

## KULTURA

BERTSOLARITZA → EKAINAREN 6AN BERA KO KULTUR ETXEAN

# Baztan-Bidasoko Bertsopaper lehiaketako sariak banatu dituzte

162 lan aurkeztu dituzte 27. lehiaketara eta kategoria nagusian Julen Zelaiek lortu du lehen saria

## TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Berts Eskolak eta Berako Kultur Batzordeak Bortzirietako Euskara Mankomunitatearekin batera antolatutako Baztan-Bidasaldeko XXVII. Bertsopaper lehiaketako sariak banatu zituzten ekainaren 6an Berako Kultur Etxean egindako ekitaldian. Guztira 162 lan lehiatu dira aurtengoan.

10 urte arteko partaideak biltzen zituen A mailan lehenbiziko saria Lesakako Orti Arotzena Porturentzat izan da, *Zozketan irabazle* lanarengatik; bigarren saria hiru lanek eskuratu dute: Lesakako Jon Urrusolo Elgorriagaren *Kanpora zoaz*, Berako Adur Huizi Matxiarena-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Bertsopaper lehiaketan sarrituetako gehienak, sariak jaso ondotik.

ren *Paxtor* eta Berako Ekiñe Taberna Fagoagaren *Bera* lanek.

11-14 urte artekoen B mailan, lehenbiziko saria Berako Ekiñe Zapiain Arlegiren *Ez da erraza izan* lanak eskuratu du. Bigarren saria, Uxue Mesa Garmendia lesakarraren *Maleta prestatzen* lanak jaso du. Kategoria honetan ere hiru aipamen egin ditu epaimahaiak, Lesakako Iratxe Muxikaren

*Lanera urruti*, Berako Kattalin Berasainen *Sari kadukatu*a eta Berako Nahikari Loiarteren *Nere lagunak* lanentzat.

15-18 urte artekoen C mailan lehenbiziko saria Lesakako Maddalen Lopez Tapiaren *LOMCE* bertso-xortak jaso du eta bigarren saria, Zubietako Beñat Etxekolonea Diezen *Euskara* lanak.

18 urtetik goitikoen D mailan, azkenik, iaz

bezala lehenbiziko saria Berako Julen Zelaiek Iriartek eskuratu du, *Oroitza soil bat* lanarekin eta bigarren saria Lesakako Eneko Fernandez Maritxalarren *Hauteskundeak* lanak eskuratu du. Sari banaketa baino lehen, eskualdeko bertso-eskoletako ikasleek beraien bertso antzeztuak eskaini zituzten oholtzan eta giro ederra izan zen Kultur Etxean.

## BORTZIRIAK

Mikroipuin lehiaketan sarituak

## TTIPI-TTAPA

Euskara Kultur Elkargoak eta Pamiela argitaletxeak antolatutako zortzigarren mikroipuin lehiaketako sariak banatu zituzten Berako Labiaga Ikastolan. D ereduko saridunen artean, baziren Bortzirietako ikasleak ere.

Erraterako, Lehen Hezkuntzako lehen saria, Berako Labiaga ikastolako 6. Mailako Urko Telletxea Etxandik (argazkian) eskuratu zuen *Izua* lanarekin. Ohorezko aipamenak izan zituzten Lesakako Tantarumairu ikastolako 5. mailako Ainara Etxeberria Terrerosek, *Gaua ipurtargientzat* lanarekin eta Iratxe Muxika Karrionek *Sardexka baten bizitza* lanarengatik.

**carrho**  
geologia olinpikoa  
Ordo estegira 25 baxo  
34700 Bera (Navarra) 1.948 630 899  
www.sarobe.net

**elika**  
Dietetika - elikadura  
IXIAR ANDUEZA LANZ  
Dietista-Nutrizionista  
Kolegiatu zenbakia NA221  
Izlea, 6 behea 31780 BERA  
948 631 283 - 645 708 512  
elikaberast@hotmail.com

**ELABORACIONES**  
BILTEGIA 948 630 102  
FAUSTINO 647 810 152  
Bidasoa, 76 - otea 21-22  
31780 BERA

**MARITX**  
Legia, 23-BERA  
T. (0034) 636 617 450  
Erakusketa, Proiektu eta  
Instalazio Elektrikoak

**F. LANCHAS**  
Akutoladorea eta berrizatzaila  
Parket eta parket flotatzaila  
Jarritza  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA



# LESAKAKO

## BESTAK 2014

ttipi-ttapa | 617 zbk  
2014.06.26

11

### Ekainaren 28a LARUNBATA

- 12:00 *Memorias de guerra* liburuaren aurkezpena Harriondoa Kultur Etxean.  
15:30 Ilasmendin Plater Tiroketa Lehiaketa (Pagolleta Ehiza Elkarteak antolatua).  
16:00 Haurren pilota erakustaldia frontoian (Arkupe Elkarteak antolatuta).

### UZTAILAREN 4a ORTZIRALA

#### TXOZNA BATZORDEAK OSTATUEN LAGUNTZAREKIN ANTOLATUA

- 18:00 Txoznen irekiera, txupinazoa.  
Ondotik Euskal preso eta iheslarien aldeko brindisa.  
19:00 Euskal preso eta iheslarien aldeko manifestazioa.  
19:45 Giza proba plazan.  
20:30 Gazte aldarrikapen poteoa, Skandalue elektrotxarangarekin.  
23:00 Kontzertuak plazan: Gose eta Revolutionary Brothers taldeekin.

### UZTAILAREN 5a LARUNBATA

- 17:30 Trikitixa Txapelketa Plaza Zaharrean.  
20:00 Gazteen manifestazioa (Txozna Batzordeak antolatua).  
23:00 Kontzertuak plazan: Dolce & Tangana eta Sarkor taldeekin (Txozna Batzordeak ostatuena laguntzarekin antolatua).

### UZTAILAREN 6a IGANDEA -BEZPERA-

- 12:00 Herriko Etxetik altxaferoa. Ordu berean txistulariak, soinulariak, trikitilariak eta haur ttikien danborrada karriketan barna.  
12:00 Ezkil jotzea.  
17:30 Tantirumairu Euskal Folklore Taldearen erakustaldia frontoian.  
20:00 Danborrada nagusia erraldoi, buruhandi, danbor-jole, soinulari eta Lesakako Bandarekin.  
22:00 Kontzertuak txozna eremuan Aske, Urban 13 eta Kalera! taldeekin (Txozna Batzordeak ostatuena laguntzarekin antolatua).  
00:00 Iratzar taldearekin dantzaldia Plaza Zaharrean.



**GORA SAN FERMIN!**  
**BAR FRONTÓN**  
PLAZA HERRI Nº38/94862518/31770-LESAKA

**IRU BIDE** GORA SAN FERMIN!!!  
Iturgintza - Alakia  
Buenos, 3  
LESAKA  
Tel: 948 637 127

**OSIÑA**  
Arropa denda  
Albistur, 3 • LESAKA  
T: 948 637 951  
**ONGI PASA BESTAKI**  
Andreen arropa  
Gizonen arropa  
Gazteenizat arropa  
Osagarriak

**ONGI PASA BESTAKI!**  
**D**  
««««H I R U K I D E»»»»  
Eguzki panelak «» Iturgintza  
Industria mantenimendua «  
Aire egokituak «  
T./F. 948 625 395  
Alkaiaga ind. • Alakia, 4-8 Behea • 31770 LESAKA

**eh**  
**HOTELCHURRUT**  
Churrut jatetxeak **besta zoriontsuak**  
**opa ditzizue** eta urte osoko gure menuak  
ezagutzera gonbidatzen zaituzte:  
Eguneko menua astelehenetik  
ostiral eguerdira arte (14,00 €)  
Asteburuko menuak (25,00 €)  
Taldeentzako menuak  
Jaunartze, ezkontza... menuak  
Menu pertsonalizatuak eta neurrira egokituak  
Sasoko produktuekin osatutako karta  
Foruen plaza | BERA | tel.: 948625540  
www.hotelchurrut.com

**udana**  
salazones  
*Importazioko  
bahaile, gazitua,  
gizatua eta kongelatua*  
**Gora San Fermin!**  
Alkaiaga Ind. • Lesaka • T. 948 631 536 • F. 948 631 550



**FAGOAGA HARATEGIA**

Aupa San Fermin !!

Albistur, 17 - 948 63 76 69 - LESAKA



**TALLERES FRAIN**

LESAKA - Tel: 948 637 525

Ongi pasa bestak!

**Burbuila**  
estilista

GORA SAN FERMIN

Bittiria, 36 | LESAKA  
T. 948 638 004



**JAVIER ALZUGARAI S.L.U**  
Hondeaketa eta Garraio Lanak

ONGI PASA BESTAK!



Nabaz auzoa | Guillen-borda | 31770 Lesaka | Nafarroa  
T. 646 986 448 | F. 948 637 390  
excavacionesjavieralzugarai@gmail.com

**Lesaka - Bera**  
**AUTOESKOLA**

UDAKO ESKAINTZAK

Gidabomen guztiak  
Gidabomina euskaraz aleratzeko aukera  
CAP-ADR ikastaroak



ONGI PASATU BESTAK!

Ezlegara, 12 BERA - 948 630 652  
Iturizubiako plaza, 8 LESAKA - 948 637 870



## UZ TAILAREN 7a

### ASTELEHENA - SAN FERMIN EGUNA-

- 08:30** Ezpatadantzarien meza isila.
- 10:30** Udalbatza bertze agintari, Ezpatadantzari eta Musika Bandarekin batera, Herriko Etxetik elizara joanen da, Meza Nagusira.
- Ondotik** Prozesioa eta Onin errekarren bi aldeetan Zubigainekoa dantza. Berehala, ikurrin-agurra zubi gainean. Agur edo dantza bera Plaza Zaharrean.
- 18:00** Bezperak. Lesakako Abesbatzak kantatuko du.
- Ondotik** Ezpatadantzarien taldeak mutildantza, neskadantza, aureskua eta jotak dantzatuko ditu Plaza Zaharrean.
- 19:30** Bertso jaialdia Plaza Zaharrean (Arrano Elkarteak antolatua).
- 21:00** Berendu afaria Arranon (Ezker Abertzaleak antolatua).
- Gauetz** Trakets taldearekin dantzaldia Plaza Zaharrean.



## UZ TAILAREN 8a

### ASTEARTEA - PENEN EGUNA-

- 09:00** Peñen gosaria
- 10:00** Peñen danborrada, Pasaia Txarangarekin,
- 12:00** Haurrentzako entzierroa Ote karrika - Plaza Zaharra.
- 12:00** Betizuak Plaza Zaharrean Pasaia txarangarekin.
- 16:30** Haurrentzako ikuskizuna Plaza Zaharrean.
- 18:00** Peñen kontzentrazioa peñen jeitsierarako, Pasaia txarangarekin.
- 21:00** **etatik aitzinera** Trikidantz taldearekin dantzaldia Plaza Zaharrean.

**ARTEKARI TALDEA**

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

|                                                                                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                        |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Langile autonomoak</li> <li>Nekazariak eta mendi langileak</li> <li>Nominak eta Aseguro Sozialak</li> <li>Lan-Kontratutarako laguntzak</li> <li>Enpresa berri ezberdinen sortzea</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Diru-laguntza ezberdinak</li> <li>Kontabilitateak</li> <li>IVA eta IRPF</li> <li>Errenta altorpenak</li> <li>Elbarritasun eta jubilazio espedienteak</li> <li>Bidegarritasun planak eta aurrekontuak</li> </ul> |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

ONGI PASA BESTAK

LESAKA: Etxeta, 20 - Ibaeta - T/F 948 637 050 | BURLATA: La Vinta, 4 - T. 948 133 328 - F. 948 133 713  
email@artekari.com



# LESAKAko

## BESTAK 2014

ttipi-ttapa | 617 zbk  
2014.06.26

13



### UZTAILAREN 9a

#### ASTEAZKENA -HAURREN EGUNA-

- 10:30 Haur eta gurasoen danborrada Pasaia Txarangak lagunduta.
- 11:30 Haurrentzako entzierroa Andra Mari Egoitza - Plaza Zaharra.
- Goiz-arratsaldez Haur ikuskizunak Eltzeta plazan.
- 12:00 Betizuak Plaza Zaharrean Pasaia txarangarekin.
- 18:00 Esku pilota partida profesionalak frontoian.
- Arratsaldez Pasaia txaranga karriketan.
- Ilunabarrean Batu-bertso poteoa eta gazte afaria txozna eremuan  
(Txozna Batzordeak antolatua).
- 00:30etik aitzinera Los Zopilotes Txirrius taldea Plaza Zaharrean.

### UZTAILAREN 10a

#### ORTZEGUNA

#### -BIKOTEN EGUNA-

- 11:30 Haurrentzako entzierroa Eltzeta plaza - Plaza Zaharra.
- 11:30 Nafarroako Jotak Voces Navarras Taldearekin Andra Mari Zahar Etxeko lora-tegian (San Fermin Jubilatua eta Pentsionisten Elkarrekin antolatua).
- 12:00 Betizuak Plaza Zaharrean, Pasaia txarangarekin.
- 12:00 Gorriti eta bere animaliak Bittiriako Plazan.
- 14:00 Herri bazkaria Eltzeta karrikan.
- 18:00 Nafarroako Jotak Voces Navarras Taldearekin Plaza Zaharrean.
- 20:00 Txakaindik jeitsiera Zortziko doinuarekin.
- Gauetz Joxe Mendizabalekin musika Plaza Zaharrean.
- 03:30 Jai-hilak Pasaia txarangarekin.



**BORDA**  
ISOLAMENDUAK  
Termikoki | Akustikoki | Suaren kontrolak  
**PLADUR LANAK**  
Eraberritzeak • Erakuntza • Industriadak  
Dekoratiboa • Pintura lanak • Sabel modularrak  
T/F: 948 637 546 • M. 609 477 277  
LESAKA • bordaisolamenduak@telefonica.net

**IÑAKI JANARIDENDA**  
- ONGI PASA BESTAK -  
Arretxeo, 12 • LESAKA • 948 638 287

**ALTZURI**  
ETXE-TRESNAK  
Bittiri, 33 • LESAKA • 948 627 531

**ruth**  
ILEAPAINDEGIA  
948 637 436  
LESAKA  
Besta zoriontsuak opa dizkizuegu!

ongi pasa bestak!  
**IZARRA**  
OKINDEGIA  
PLAZA ZAHARRA 12-13  
31770 LESAKA NAFARROA  
TEL: 948 637 855

**Otxoteko**  
PINTURAK  
ELEKTRIZITATEA  
Bittiri, 18 • 31770 LESAKA  
948 637 902  
Juan Luis 678 993 818 • Jon 687 147 466  
otxotekopinturak@yahoo.es  
ONGI PASA, ONGI PINTURATU!

SUKALDERAKO ALTZARIARIK  
ARMAIRU ENPOTRATUAK  
KOLTXOIARIK  
**BORTZIRI**  
UNION ANAIAR  
Erakusketa: Berea Etxea | LESAKA | Nafarroa  
T. 948637266 | M. 607226891 | F. 948637511  
bortzirialtzari@telefonica.net





**ARRANO**  
ostalua  
Albistur 13, Lesaka. 948 627 597

KROKETAK, PINTXOAK, BOKATAK,  
ENTSALADAK, PLATER KOMBINATUAK  
eta giro bikaina

**PRESO TA IHESLARIAK ETXERA!**

**LEIZA OSTALUA**  
**"Antoiu"**

Tel. 948 637 087  
Egunero goizeko 6:00etatik irekia.

BOKATAK  
RAZIOAK  
EGUNEKO MENUAK  
MENU BEREZIAK ENKARGUZ  
PLATER KOMBINATUAK



**XAGU**  
**LIBURUDENDA**

Tel./Fax 948 638 232  
Kontakotako bidea, 7- LESAKA  
(osakuntza-zentzuan, paisan)  
**BESTETAKO ORDUTEGIA**  
08:30-13:00

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- LIBURU EUNGARDO INPRIMATETAK
- ESKAKARRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGURKARRAK, ALDIZKARRAK



**Desigual**

**bixkiak**  
KIROL ETA MODAKO  
arropa denda  
Arretxea, 7 B2 • LESAKA • 948 638 110




Juan Carlos eta Mayi PIKABEA | Azal lehiaketan saridunak

## «Ilusioz eta sorpresaz hartu dugu aita-alabon lanak biak batera sarituak izatea»

Ez dakigu lehen aldia den, baina ez da ohikoa aita eta alaba batek lehiaketa bereko sari nagusiak eskuratzea. Horixe gertatu da aurtun Lesakako Sanferminetako programaren azalaren eta gibekeko azalaren lehiaketan. Azalean, lehen saria Juan Carlos Pikabea Zubiri, 50 urteko margolariak lortu du *Bestan zurrunbilua* lanarekin eta herriko 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta egiten den kontrazal lehiaketa, berriz, Mayi Pikabea Perinne, 9 urteko alabak irabazi du *Jaia Alaia* lanarekin. Biek «ilusioz eta sorpresaz» hartu dute berria eta biek batera saria lortzen duten lehen aldia bada ere, bakoitzak bere aldetik lehen ere lortua zuten: «**Nik 1991n irabazi nuen azal lehiaketa, txistulari baten margolan batekin, Lesakan azal lehiaketa egin zen lehen urtea izan zen. Geroztik ez nuen aurkeztu**», dio Juan Carlos aitak. «**Nik duela bi urte aurkeztu nuen lehen aldiz, 7 urte nituenean, eta irabazi egin nuen. Joan den urtean ez nuen aurkeztu, ez nuen denborarik izan**», aipatu digu Mayi alabak. «**Joan den urtean zabartu zen, alferkeria pixko bat**» erantzuten dio aitak ondotik. Beraz, bi aldiz presentatu eta bietan garaile suertatu dira Pikabea aita-alabak.

Kuriosoa da baita ere Juan Carlos Pikabea bezalako margolari ezagun batek argazki lan batekin lortzea saria: «**Betidanik izan dut fotografiarako afizioa, 17 urterekin erosi nuen lehenbiziko kamera eta gaur egun kamera edozeinek baldin badu ere, orduko artxiboak jende guttik ditu. Margotzeko gaiak ere argazki bidez jasotzen ditut gehienbat, dokumentazioa, egoerak... Nahiz eta paisaje zehatza ez islatu, udazkeneko koloreak, zeruak... argazkian ateraz gero, burutik errazago galtzen dituk argazkitik baino**». Margola -ria ofizioz eta argazkilaria afizioz dela erraten ahal da.

Mayi eta Monica alaba bixkiek arte munduan segitzea gustatuko litzaiokeen galdetuta, garbi dauka aitak: «**Hau maite baldin badute aitzinera! Hagitz mundu konplikatu da, baina sormena izatea eta lantzea hagitz aberasgarria da gaur egun. Modu jakin batean hezitzen gaituzte, baina norbe -rak aportatzen ahal duena txarra ez da izanen**». Alde horretatik, Mayi alabak onartzen du margotzea gustatzen zaiola eta eskolan gehien gustatzen zaizkion ikasgaiak «**plastika eta matematikak**» direla. Ez du garbi handitzean aitararen ofizioarekin segitzea gustatuko litzaiokeen, baina Natalie amak argi omen du: «**Etxean margolari batekin nahikoa!**».




**APITTU**  
ALUMINIO LANAK

Aluminiozko Lehiak, Kontralehiak,  
Ateak, Portueko itxurak eta berandilak

**GORA SAN FERMIN!**

T./F. 948 638 297 | M. 626 312 326  
Otsango auzoa - 12. pabiloia | 31770 Lesaka

**GARBILEKU**  
GARBITEGIA - LAVANDERIA

Aitonbrak, larua, antea...  
denetarik oro har  
garbitzen dugu

**Garbi, argi, puzti**



Suturno, 2 - 948 637 438  
31770 LESAKA



# LESAKAKO

## BESTAK 2014

ttipi-ttapa | 617 zbk  
2014.06.26

15

### SANFERMINAK GOGOKO

Sanferminetan gehien gustatzen zaiena galdetuta, «zezenak balkoitik ikustea» aipatu digu Mayik, «baina ez litzaidake gustatuko toreatzera sartzea, ni barreratik». Juan Carlosi, berriz, «garai batean bezpera gustatzen zitzaidan, jendea frexko-frexko, besta egiteko gogo hori, baina gaur egun San Fermin eguna, dantzak, herriko giroa... Aldiz, *Pobre de mí* ez zait behin ere gustatu, kandelak eta zerak, bukaera horiek ez zaizkit gustatzen». Programan zerbait gehitzekotan, berriz, «karts batzuk ekartzea» proposatu du Mayik. Aitaren ustez, «nahiko ongi egituratua daude bestak, ez zait deus gogoratzen».

Beraien lanak programan argitaratuak ikusteaz gain, diru-saria ere badute, 250 eurokoa aita eta 100 eurokoa alabak. «Eskolako materiala erosteko erabili behar da, beraz, behar ditudan gauzak erosiko ditut eta ahizparekin erdibana egingen dut», dio Mayik. Juan Carlosek, berriz, «alabentzat zerbait» erosiko omen du. «Norberaren lana errekonozitzea ongi dago, denok badugu egolatra puntu hori, baina programan argitaratzeari ez diogu eman behar ez duen garrantzirik ere», aipatu digu, elkarrizketa bukatzeko.



**TRANSPORTES IRIGOYEN**  
ONGI PASA BESTAK

629 592 215 - BILVETANO GAZTIA, 1 - LESAKA

garbiketa • limpiado

**usi** ongi pasa BESTAK!

**MOTA GUZTETAKO GARBIKETAK**

- Bulegoak, portalak, etxeak, kristalak, garbiketa orokorra eta erakuntza lanetakoak
- Industria-makinek lan egiten dugu
  - Fregatzeko makina industrialek
  - Hidrogarbitzaile industrialek
  - Hautu eta ur-surgapailu industrialek
- "Fregado en plano" delakoa
- Produktu profesionalak (bakterioen aurkakoak, alkalinoak...)

T. 689 305 221 (Oihane) LESAKA

Semper Semper Semper Semper Semper Semper Semper Semper Semper Semper

**autoeskola**

**ESKaintza BEREZIAKI**

Ikastaro teorikoa  
nahiz praktikoa  
erakargarri

**- INFORMATU ZAITEZ -**

Eztegara pasealekua, 26 Plaza Berria, 7  
BERA LESAKA  
T. 948 630 298 T. 948 638 299  
e-posta: semperautoeskola@gmail.com  
ongi pasa bestak!

**"TELLETXEA"**  
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatzeko sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikaria  
LESAKA • T. 619 418 683  
john.telletxea@hotmail.com  
www.telletxealorazaintza.com

**GOZOTEGIA**  
**HAIZEA**  
BOLLERIA  
KAFETEGIA

T. 948 63 80 36  
Plaza Zaharra, 7  
LESAKA

Etan Lesakako instalaziora,  
eta gozatu dauden aukerakini!

ONGI PASA SAN FERMINAKI!

T. 948 637 400  
www.lesaka.net  
kiroldegia@lesaka.net

**ZOANSA**

ONGI PASA BESTAK!

TXARA • PINTURA • MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA

BERT Audi Volkswagen HYUNDAI

bonaria, 2 Alkalan Ind. - LESAKA (Santera Berria)  
T. 948 625 555 F. 948 625 505  
zoansa@zoansa.com



**OHANGUO**  
4. OREA SAN FERMIN!!!  
T. 948 638 126  
LESACA  
KARSAID BAZKARAK ETA AFARAK BAKARRIK ENKARGUZ  
Pintxoak - bokaloak - pider lorberatuak EGUN OSOAN

**MIKEL UBIRIA**  
eskabazioak  
garraioak  
ONGI PASA BESTAKI!  
Blumen 8 - 31770 Lesaka  
948 637 302 619 716 322 606 779 641  
info@excavacionesubina.com

**Dia %**  
LESACA  
Sanferminetan  
otordu goxoak  
prestatzeko  
LESAKAKO DIA  
Plaza Berria, 10 - 948 637 335

GORA SANFERMINAK!!!  
**BORTZIRUDI**  
Inprenta  
Kopiatuak, testuak, argazkiak, koloregintza, paperlagia  
948 631 321  
bortzirudi@bortzirudi.eu

**ainhoa**  
estilista  
ORDUTEGIA  
Asteartetik ostiralera:  
09:30-13:30 | 16:00-19:00  
Larunbatetan: 09:00-14:00  
Astelehenetan itxia  
T. 948 638 170  
Albistur, 63B LESACA  
**ORAIN**  
LASER BIDEZKO DEPILAZIOA  
PASALDI  
BIKOITZEKO  
SISTEMA  
LEHENENGO FROGA  
DOAN



Rafael ENETERREAGA IRIGOIEN | Aurten txupinazoa botako duena

## «Edozein lesakarrentzat bezala niretzat ere ohore haundia da sanferminetako txupinazoa botatzea»

Barberenea etxean jaio zen Rafael Eñeterreaga (Lesaka, 1942/12/08) hamar senideko familian, eta 71 urte beranduago, bere jakinminak bultzatuta, Lesakako historia eta garai bateko kontuen inguruan aditua bihurtu da. Inork gutti jakinen du berak adina bere herriaz, eta gainera, bertzei horren berri emanez gozatu egiten du.

Bere lana ezaguna da, eta izanen da, herriko kontuak ikeritzen eta ezagutzera ematen jarraituko duelako, baina nor dugu Rafael bera? 25 urterekin Nafarroako Diputazioko Herri Lan Departamentuan hasi zen lanean eta argindar linearen proiektuak eta telebista antenen instalazio eta mantenimendu lanak egiten aritu zen. Gustuko lana zuela onartu digu, «egunero Nafarroako mendieta telebista



Rafael Eñeterreaga Irigoien.

errepikagailuekin» ibiltzen zelako, baina «gogorra» zela ere gogoan du, «neguan gorriak pasatzen genituen». Orduko pasadizo saila ere baditu, baina zortzi urte beranduago, Diputazioan eszedentzia eskatu eta Nafarroako Aurrezki Kutxan lanean hastea erabaki zuen, «soldata baxua - goarekin izanagatik, Lesakara etortzeagatik bakarrik». Halaxe hasi zen Nafarroako Kutxan lanean 1976an, eta 2001ean aurrejubilatua zen arte aritu zen. Geroztik, berri, «Herriko Etxeko eta Elizako artxiboak eta Nafarroako Artxibo Orokorreko paper zaharrak ikustera dedikatzen naiz». Azken urteotan «atatxiren lanean» ere badabil, eta «dena kontent» egiten duela dio. Non aritua beti bilatzen du eta aitortu digunez, «dakidan apurra hainbat bidetatik gainerakoei jakinaraztea gustatzen zait: bisita gidatuak, Facebook... Gure Lesaka ezagutaraztea ere gustuko dut, bai hemengoei eta bai kanpokoei ere». Dagoeneko ehun bisita gidatu baino gehiago omen ditu eginak herrian barna, «eta gero eta gusturago egiten dut, jendeak interesa baduela ikusten baitut». Horixe izan omen zen herriko historia eta arkitekturaren zati bat biltzen duen Lesakako gai ezberdinak liburua argitaratzearen arrazoia: «aunitzek horrelako zerbait egiteko erraten zidaten, eta 2013ko San Juan bezperan egindako bisitan, datuak denen eskura egoteko moduan jartzera animatu ninduten. Horrela sortu zen liburua, eta lesakarrek Lesakako gaien inguruan duten interesa benetakoa dela erakutsi dit».

Sare sozialetan ere lan haundia egiten du, eta kontu pertsonalaz aparte, bertze hiruzpalau ere irekiak ditu Facebook-en: Lesakako inauteriak, Lesakako Olentzero, Lesakako Sanferminak eta Lesakako gai ezberdinak. Azken honetan «dena» sartzen omen zaio, eta beraz, «ez dut bertzerik irekitzeko beharrik». Kontatu digunez, «Lesakako gaiak bakarrik sartzen ditut, kultura, kirola, bestak edo herrian egiten den bertze ekitaldiren baten ingurukoak eta orri horietan guztietan elkarbanatzen ditut, Facebook-eko lagun gehiagorengana zabaltzeko. Egia errateko, bisita aunitz izaten dira, batez ere, inauterietan, sanferminetan eta Olentzero garaian». Olentzerorena omen guztietan orriak bisitatuena eta ondotik sanferminetakoa.

**JOISA**  
AROTEGIA  
MAKINA ERREMINTA  
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK  
Barandak, balkoiak, ateak,  
hesiak, forja artistikoa, ...  
T./F. 948 638 150  
M. 646 774 117  
www.talleresjoisa.com ONGI PASA BESTAKI!  
Otsango Ind. • 31770 LESACA • talleresjoisa@hotmail.com

**TXIRULA**  
ONGI PASA BESTAKI!  
TXIRULA  
LOREDENDA  
opariak • bitxiak  
enmarkazioak  
Albistur 39 LESACA  
T. 948 627 542



# LESAKAKO

## BESTAK 2014

ttipi-ttapa | 617 zbk  
2014.06.26

17

### SANFERMINETAN TXUPINAZOA BOTAKO DU

Rafael izanen da aurtengo sanferminei hasiera emanen dien txupinazoa botako duena. Edozein moduz, kultura zinegotziak proposatu zion lehenbiziko aldian ezezkoa eman omen zion: «bertze norbait bilatzeko erantzun nion eta berak pentsatzeko eta deituko zidala erran zidan. Pentsatu eta baiezkua erran aitzinetik, ni aukeratu izanaren arrazoa zein izan zen galde-

«1929an Udalak herriko bestak sanferminetatik Madalen bestetara aldatzea proposatu zuen, kanpoko jende gutti ibiltzen zelako».

tu nion eta kultura mailan Lesakaren alde egindako lanagatik hautatu nindutela aipatu zidan». Adierazi digu, «oraingoz» ez dagoela urduri, «baina egun horretan hala egonen naizela pentsatzen dut eta onartuko dut, kontent nago, eta edozein lesakarrentzat bezala edo niretzat behintzat bai, ohore handia da sanferminetako txupinazoa botatzea».

Egunez egun, «zalantzarik gabe San Fermin Egun osoa» du gogokoena, «goizetik eguna bukatu arte. Urte aunitz daramazkit Ezpatadantzarekin 08:30eko Mezara joaten». Baina bezperako danborrada ere atsegin du: «urte aunitzez parte hartu dut, Irungo Atsegina Elkartetik danborrak ekarri ondotik. Nonbait, sanmartziale-tara eramaten zituzten kanoiekin egindako truke bat izaten zen». Eta nola ez, txupinazoa-aren momentua ere gustatzen zaio: «posible badut ez dut sekula hutsik egiten». Baina orokorrean egun guztiak ditu maite: «Peñen Eguna, Haur eta Ezkonduen Egunak...». Ekitaldien artean, Musika Bandaren saioak azpimarratu ditu, «eskerrak eman eta euren interes eta esfortzua eskertzeko aprobetxatzen dut». Eta ezin atzendu 2008az geroztik Rafaellek berak egin eta etxean ikusgai paratzen duen Zubigainekoaren muntaia ikusgarria. Ezpatadantzariak dantzan, apaiza, alkate eta zinegotziak Eskol Tikiko estalpean, erraldoiak, buruhandiak, txistulariak... denak biltzen ditu. «Ikusten dutenei gustatzen zaiela jakiteak ilusio handia egiten dit. Aurten ere egitea espero dut, eta denak gonbidatuak zaudete».

Sanferminetatik guttien gustatzen zaiona, berriz, asteburuko jendetza da, «itomena» izaten delako: «orain urte batzuk emandako datuen arabera, seikoiztu egin zen biztanleria. Aurten San Fermin Eguna astelehenarekin denez, espero dezagun lasaitasun gehiago izatea».



Rafael Eñeterreaga Lesakan egiten dituen bisita gidatuetako batean.

### HERRIKO BESTETAN IZAN DIREN ALDAKETAK

Beharbada bat baino gehiagok jakinen du Lesakako bestak beti ez direla uztailen izan. Eñeterreagak behintzat ongi baino hobeki menperatzen ditu horrelako kontuak: «Lesakako eliza San Martin da, baina herriko bestak sanferminetan ospatzen dira. San Fermin eskaintako sei egun izaten dira eta horietako bat urriaren 11 da. 1591era arte herriko bestak urriaren 11n ospatu ziren, eta urte hartan, Iruñean bezala, uztailko lehenbiziko igandean ospatzea erabaki zen. Uztailko lehenbiziko igandea San Fermin Eguna tokatu zen. 1657an bestak uztailaren 7ra pasatu zituzten». Aldatu diren bertzelako kontuak ere badira: «garai batean, udal ordezkariak banderak, Ezpatadantzariak, musikak eta herritarrek lagunduta Meza Nagusira joaten zirenean, erraldoiak joaten ziren gibeletik. Hortaz aparte, banderak elizan lehentasunezko tokia izaten zuen, eta ohitura hori galdu egin da». Halere, bere irudiko, «besten ordutegia izan da aldaketarik nabarmenena, eguneko besta izatetik gauekoa izatera pasatu baita». Somatu duen bertze aldaketa «orain etortzen den jendetza da, batez ere asteburuetan». Kontatu digunaren arabera, «1930. hamarkadan, San Fermin Egunean, batez ere Bortzirietatik eta inguruko herrietatik jendea dantzak ikustera etortzen zen, baina gainerako egunak herritarrentzako izaten ziren. Asteburuetan ia ez zen nabaritzen». Lehenagotik, ordea, jende gutti ibiltzea kezka iturri izan omen zen: «1929an Udalak herriko bestak sanferminetatik Madalen bestetara aldatzea proposatu zuen, kanpoko jende gutti ibiltzen zelako eta hori Lesakako interesen kontrakoa zelako eta Iruñeko besteekin ez bat etortzeko». Proposamena ez zen aitzinera atera, eta gaur egun, Euskal Herriko bazter aunitzetako jendearen bilgune dira Lesakako bestak. Rafael ere ez da urrutiko ibiliko, berak baitu aurten Lesaka zurigorri jantzi duen besta lehertzeko ardura.

INSTALACIONES/INSTALAZIOAK  
**INDARRI**  
HOTZ KOMERTZIALA ETA  
INDUSTRIALA AIRE GIROTUA  
ONCE PASA  
BESTAKO  
639 103 305 - Zoba, 13 - 31789 LESAKA

**KASINO**  
OSTATUA - RESTAURANTE  
  
Jai alai eta  
pozgarriak  
izan ditzazuela  
Plaza Zaharra - 948 63 72 87  
LESAKA

kattagorria  
lasteria martxaria  
FERRIN DUSAK  
JANTZI ERIKORAK  
%10 dantza taldeentzat  
eko deskontua  
Ezagutu gure online denda!  
www.kattagorria.com  
Behinikoz 10 Lesaka T. 948 627 514  
Ongi pasatu bestak!

TXANXAKAIN  
TRANXAKAIN S.L.  
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY  
MOTA GUZTIENTAKO IBILGAILUAK  
**EKO TXAKAIN S.L.**  
GAIKAKO HONDAKIN BILKETA  
Gora San Fermin!  
T. 669 840 198 / 948 638 052  
Faxa: 948 627 578  
Otsango Ind. 28 • LESAKA  
tranxakain@yahoo.es





Aluminio R.P.T / PVC | Pertsianak | Toldoak  
Itxidurak | Kontraleihoak | Barandak | Berandak  
**ONGI PASA BESTAK!**

T. 948 630962 F. 948 625400 H. 31780 BERA  
irekileihoak@irekileihoak.com · www.irekileihoak.com



**ONGI PASA  
BESTAK!**

Tel. 948 635 458  
www.ttipi.net

# MALE-REKA *atope!!*

ARROPA ETA OSAGARRI PERTSONALIZATUAK



**KIROL-ARROPA LANEKO ARROPA KAMISETAK TXAPELAK PAÑULUAK BORDATUAK**

Nagusia, 1 · DONEZTEBE · 948 451 571 · 636 885 190 · male-reka@male-reka.com ·  Male-Reka



## KOXKONTA

JATETXEA | **LESAKA**

T. 948 627 519



**KOXKONTA JATETXEKO  
LAN TALDE BERRIAK  
BESTA ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUE**



GIZARTEA → ITURLANDETAKO AUZOTARREK

# Etxebizitza inguruan ez dute tanatoriorik nahi

Udalak auzotarren kezka ulertu arren «egoera normaltasunera bideratu behar dela» uste du

## TTIPI-TTAPA

Iturlandeta 2ko beheko aldean tanatorio edo beilatokia jarri behar dutela eta bere ezin negona agertu dute auzoko bizilagunek. «Ez dugu nahi inongo etxebizitzaren azpian tanatoriorik egotea, ez hemen eta ez inon ere», diote. Udalari ordenantza aldaketa bat egitea eskatzen diote bizilagunek eta horretarako uztaila erdialdera arte, sinadura bilketa bat egingen ari dira. Alkatetzatik diote, ordea, eskaria egin zenean indarrean zegoen ordenantzak beilatokia jartzea baimentzen zuela eta orain ezin dela gibelera egin «auzokoek egin duten ordenantza aldatzeko eskaerak ez lioke eraginen martxan dagoen prozesuari. Hau da, horrekin ezin da bertan behera utzi tanatorioaren espedientea».

Bilera egin zuten bi alderdiek eta bertan, bizilagunek diote «heriotzarekin bertze harreman mota bat izateko eta hori gure seme-alabei transmititu behar geniola, gure buruarekin lan berezia egin behar genuela adierazi ziguten udal ordezkariak». Landu beharreko bidea dela onartzen dute baina «oraindik ez gaude prest». Izan ere, «behartuta gaude hilaren senitatekoen oinazearekin topatzera, balkoira ateratzean, portalean, ondoko parkean eta hainbat momentutan» eta horregatik eskatu diote Udalari, ordenantzak aldatzeko «beilatokirik ez eraikitzeke edozein etxebizitzaren azpian, bai bere jardueragatik, baita ibiliko den jendetzagatik eta ibilgailuengatik ere, bizilagunak kaltetzen dituelako eta eguneroko jarduera normaltasunez egitea oztopatzen duelako». Udalak, bere aldetik, «gai honek sentibiltasuna ukitzen duela eta batzuegan kezka sortzen duela ulertu arren, egoera normaltasunera bideratu behar dela» uste du.

Azken hilabeteetan udal taldeek bilera bat



UTZITAKO ARGAZKIA

## 75 txistulari bildu dira Julio Caro Baroja gogoratzeko

Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko urte osoan egingen diren ekitaldien baitan Txistularien Topaketa ospatu zen ekainaren 15ean, Mugarik Gabeko Txuntxuneroen eskutik. Txistulariek aktuazioa ere egin zuten Itzean. Bertan, harrera egin zieten txistulariei Pio Caro Baroja eta Josefina Jauregialzo senar-emazteek eta hauen alabak, Carmen Caro Jauregialzok. Udalaren izenean, Marisol Taberna alkatearen eskutik, Josu Goiaren Urtzi Thorren Begia izeneko eskultura jaso zuten Caro Barojatarrek. Guztira 75 bat txistulari bildu ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Ikasketa bukaerako orlak banatu ditu Toki Ona Institutuak

Toki Ona Institutuak Ekitaldi Akademiko berezi bat antolatu zuen ekainaren 13an, ikasketak bukatu dituzten ikasleei orlak banatzeko. Ekitaldiko protagonistak Lanbide Heziketako 20 ikasle eta batxilergoko 48 ikasle izan ziren. Ekitaldia Kultur etxean ospatu zen, bertan ikasleak gurasoak, irakasleak, Institutuko langileak eta Bortzirietako Udaletxeetako ordezkari batzuk bildu ziren.

baino gehiago egin dute gai honen inguruan eta solastekoak dira berriz ere. Bilera horietan ez da planteatu araudia aldatzea.

## Enaitzen aldeko zozketa

Enaitz Gara gurasotaldeak antolatutako besta egun handiaren baitan hamar saskiak

zozketatu ziren. Oraindik hiru zenbaki falta dira agertzeko: 0128 (Igonen saldua), 0348 (Amaleun arraindegia) eta 3637 (Cristellek saldua).

**Arturo**

Atropak Eberako osagarriak Lentzeria Mertzzeria

Aitzate, 20 BERA T. 948 630 136

**BERA**

Zure inguruan klase guztietako insektuz (xomorro, zinourra, armiarmak, kukuxu...) eta orratzi xagutuez garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak

**GOIEKO** Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zalein, 42 A • BERA

**XIRALI**

Atzalea 1 BERA

Telefon: 948 631 488

## LESAKA

KULTURA → BIGARREN EDIZIOA EKAINAREN 8AN

# Ignacio Amelivia nagusitu da Margoketa lehiaketan

21 margolari helduk eta 20 hurrek parte hartu zuten

## Aitor AROTZENA

Elias Garralda zena-ren omenez Beti Gazte elkarteak, Udalaren eta Zerbitzuen Elkartearen laguntzaz bigarren urtez antolatutako margoketa azkarreko lehiaketa egin zen ekainaren 8an. 21 margolarik parte hartu zuten helduen lehiaketan eta bertze 20 haur ere karrikaz karrika hedatu ziren, beraien margolanak egiteko.

Umeen artean, LHko 1. eta 2. mailako ikasleen artean, lehen saria Naiara Ubiriarentzat izan zen eta bigarrena Fermin Bertizentzat. LHko 3. eta 4. mailako ikasleen artean, lehen saria Anne Pascualek eskuratu zuen eta bigarrena Asier Tabernak. LHko 5. eta 6. mailakoen artean sari bakarra eman zen, Garazi Migeltorentzat.

Helduen artean, berriaz, 500 euroko lehen saria Logroñoko Jose Ignacio Ameliviak esku-

ratu zuen. Bigarren saria, Eibarko Esteban Orozek. Ermuako Jon Idigorasek ere 100 euroko akzesita eskuratu zuen, bere koadroaren kalitatearengatik. Herriko margolariek egindako margolan onenari emandako 150 euroko saria Raquel Arlegirentzat izan zen.

Epaimahaia herriko hiru margolarik osatu zuten, Juan Carlos Pikabea, Santiago Jorge eta Javier Igoak.

## Beti Gazte Eguna

Ekainaren 7ko Beti Gazte Egunaren baitan, jokalarri erregularrenei sariak eman zitzaizkien. Rakek Lasaga (neskak), Aimar Otxoteko (infantilak), Urki Txoperena (kadeteak), Gorka Sanjurjo (jubenilak) eta Unai Gurrutxaga (nagusiak) izan ziren saridunak eta Ander Olaizolak Abreu saria jaso zuen.

Bertze aldetik, datoren denboraldirako nesken taldea ateratzeko asmoa du Beti Gazte. Hortaz, 16 urtetik goitiko neskei futbol taldean apuntatzera animatu nahi die klubak. «Esperientzia polita da



ARGAZKIAK: RAFAEL ENETERREAGA

## 43 hurrek parte hartu dute Ezagutu dezagun Lesaka lehiaketan

Beti Gazte elkarteak Udalaren laguntzarekin urtero antolatzen duen Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketan 43 neska-mutikok parte hartu dute aurten, 30 galdarari erantzunez. Ekainaren 6an banatu zituzten sariak Harriandoan. A mailan Ibon Ruiz Sarasolak lortu zuen lehen saria, Aitor Galardi Txoperenak bigarrena, Jon Galardi Txoperenak hirugarrena eta Iker Telletxea Oiarzabalek laugarrena. B mailan, lehen saria Josu Zubieta Eneterreagak eskuratu zuen, bigarrena Jon Ander Ruiz Sarasolak, hirugarrena Iraia Etxarte Telletxeak eta laugarrena Maddi Igoa Apezetxeak. C mailan, azkenik, Amaia Lasaga Barroso-rentzat izan zen lehen saria, Mikel Galardi Txoperenarentzat bigarrena, Ane Telletxea Oiarzabalentzat hirugarrena eta Olaia Urdangarin Tabernarentzat laugarrena. Galdera gehien ongi erantzun dituen haurra Josu Zubieta Eneterreaga izan da eta honek bere sari berezia jaso zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

## XXXI. Txoko-Txiki lehiaketako sariak banatu dituzte ikastolan

Tanturumairu ikastolak antolatutako XXXI. Txoko-Txiki ipuin eta ilustrazio lehiaketako sari banaketa egin zen ekainaren 13an. Aurten, ikastolakoekin batera, Irai in eskolako LHko ikasleek ere parte hartu dute. Ipuin lehiaketan hauek izan dira saridunak: Maitane Erkizia (1. maila), Lexuri Arotzena (2.), Garazi Ubiria (3.), Orti Arotzena (4.), Izaro Iparragirre (5.) eta Uxue Urroz (6.) lortu du saria eta Irati Iriarte aipamena. Ilustrazio lehiaketan, Hamelingo Txirulariaren ipuinerako ilustrazioak marraztu behar zituzten. 1. mailan Fermin Bertiz (lehen saria) eta Nahia Pumar (aipamena), 2. mailan Angie Olabe (saria) eta Naiara Ubiria (aip.), 3. mailan Imanol Mesa (saria) eta Oihana Arruti (aip.), 4. mailan Naroa Garbisu (saria) eta Sara Txoperena (aip.), 5. mailan Manex Ramos (saria) eta Ane Ordoki (aip.) eta 6. mailan Garazi Migeltorena (saria) eta Zuriñe Erkizia (aip.).



eta kirola egiteko aitzakia ederra» diote. Interesatuak 680 770682 telefonora deitu behar dute (Mikel).

## Ba al zenekien

Joxe Iturria eta Antonio Iturria aita-semeek idatzitako *Memorias de guerra* liburuaren aurkezpena egingen dela ekainaren 28an, larunbat eguerdian Harriandoa Kultur Etxean





**KULTURA → LARRABURUA ELKARTEAK ANTOLATUA**

# Erramun Martikorena ezaguna herrian kantari

Uztailaren 13an  
bi emanaldi  
eskainiko ditu  
elizan

## Irune eta Itsaso

Larraburua jubilatuta elkartek antolatuta, Erramun Martikorena-ren kantaldia izanen da Joxeanjel akordeoilari ak lagunduta uztailaren 13an, eguerdiko 12:30ean elizan. Dohainik izanen da (borondatea eskertuko da). Ondotik, 14:30ean kantu bazkaria izanen da Erramunekin Larraburuan. Lehenetsuna bazkideek izanen dute, baina lekua gelditzen bada, bazkide ez direnek ere bazkarira joateko aukera izanen dute 25 euroren truke. Izena emateko uztailaren 6a arteko epea dago Xoraxuriko bordara deituz (948635081).

## Haurraren eguna

Aurtengoan ere bi egunetan ospatu zuten haurraren eguna Landagain eskolako ikasleek. Ekainaren 14 eta 15ean aurreikusitako ekitaldi guztiak bete zituzten eta eguraldi ederra lagun, jende aunitz hurbildu zen plaza aldera.

**Igerilekuko  
langileak eta herri  
lanetarako  
kontratuak**

Bertze urte batez, igerilekuetako langileak Oihan Iparraguirre eta Julen Aranburu izanen dira. Igerilekuak ekainaren 22tik abuztuaren 25era egon den dira zabalik; goizeko 11etatik ilunabarreko 8ak arte, jai egunak barne.

Bertzetik, udalak aurtan ere langabezian dauden bi lagun kontra-



ARGAZKIA: AMAIA ZEI AIFETA

Jende aunitz hurbildu zen plazara Haurraren Egunean.



ARGAZKIA: AMAIA ZELAIETA


## Nafarroako kenpokai txapelketa

Maiatzaren 24an Beran egin zen Nafarroako kenpokai txapelketa eta hainbat herritarrek parte hartu zuten, bakoitza bere kategorian: Eider Indaburu, Aima Aginagalde, Enaut Iturbide, Miren Olaetxea, Martxel Amunarriz, Mikel Iturria, Unai Arburua, Mikel Indaburu eta Niko Garcia. Mikel Iturria txapeldun izan zen 8 urtekoen kata eta kobudo modalitatean. Unai Arburua ere txapeldun izan zen 10 urtekoen kobudo eta kumite modalitatean. Honez gain bigarren postua lortu zuen kata-n. Niko Garcia ere fin aritu zen, kata-n hirugarren postua, kobudon bigarren postua eta kumiten ere bigarren postua lortuz. Mikel Indaburuk 12 urtekoetan bigarren postua eskuratu zuen kobudon eta kumiten. 18 urtetik gorakoetan Miren Olaetxea txapeldun izan zen Goshin-en; eta bigarren postuak lortu zituen kata, kobudo eta kumite modalitateetan. Zorionak deniei!

tatu ditu lanerako: Juan Ramón Iturbide eta

Jose Martín Zelaia izanen dira izanen dira he-

rriko lanetan ariko direnak.



# IGANTZI

GIZARTEA → ABUZTUAREN 26RA BITARTE BOZKATZEN AHAL DA INTERNET BIDEZ

## 2014ko Txokorik Onenaren hautagaia San Juan Xar da

Guia Repsolen proposatu dituzten Nafarroako 26 lekuen artean Igantzikoa aukeratu dute

### TTIPI-TTAPA

San Juan Xar natur erreserba aukeratu du Guia Repsolek Nafarroa ordezkatzeko 2014ko Txokorik Onenaren lehiaketan, estatu osoko bertze 16 lekurekin batera, komunitate autonomo bakoitzeko bat. Orain, Internet bidez hautatzeko aukera izanen da abuztuaren 26ra bitarte. Finalista geldituko diren bi herriak orduan jakinaraziko dituzte eta erabiltzaileen artean botu gehien jasotzen duena izendatuko dute irabazle irailaren 16an.

Lehiaketaren lehen fasean, [guiarepsol.com](http://guiarepsol.com) webguneko erabiltzaileak izan dira protagonistak, 1.034 leku proposa-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Izpirituaren santutegi bat, naturaren santutegi baten baitan. Hori omen da San Juan Xar.

DATUA

1.034

LEKU

proposatu dituzte estatu osoan txokorik politena izateko, 26 Nafarroan, eta hauen artean San Juan Xar aukeratu dute.

tu baitituzte aurtengo txokorik onena izateko. Nafarroan, ondareagatik edo naturagatik bereziak diren 26 leku proposatu dituzte eta horien artean San Juan Xar nagusitu da, naturaren bitxi bat delakoan, «urak eta landarediak paradisu tiki bat osatzen duen eremua».

Izpirituaren santutegi bat, naturaren santutegi baten baitan. Horixe omen da San Juan Xar. Penintsula osoan xarma (*Carpinus betu-*

*lus*) baso bakarra duen erreserba izateaz gain, baseliza-lezean hiru iturri daude, azaleko eritasunak sendatzen omen dituen urarekin.

Ohiturak dio, lehenik hiru iturrietatik edan behar dela, gero zapi batekin mindutako gorputz atalak igurtzi eta gero iturri inguruetan utzi behar direla zapiak.

Hirugarren edizioa du Guia Repsolen lehiaketa honek. 2012an Olivenzako Magdalena eliza, Badajozen, izan zen irabazlea eta joan den urtean Karrantzako Pozalagua lezea, Bizkaian. Lehiaketa irabazi eta aunitz igo da leku haue- tan bisitari kopurua.

### GIZARTEA

Puntu Lila jarriko dute aurten ere Lesakako Sanferminetan

### TTIPI-TTAPA

Emakumeen aurkako indarkeria kasuak saihesteko kontzientzia-zio kanpaina egiteko eta horietakoren bat gertatu balitz salatze-ko eta informazio zu- zena eskaintzeko lila puntua jarriko du bigarren urtez Bortzirietako Gizarte Zerbitzu- en Mankomunitateak, Berdintasun Alorraren bidez, Lesakako Sanferminetako astebu- ruan, ortziralean eta larunbatean.

Berrikuntza moduan, droga eta sexualitateari buruzko informazioa ere emanen dute sanferminetako *stand*-ean. Mankomunitatearen asmoa, ortziralean drogen azterketarako furgoneta bat jartzea da, eta drogen arriskuen inguruko informazioa ematea. Sexualitateari dagokionez, babesik gabeko sexu harremanen arriskuaz informatuko dute eta horretarako diptikoak eta kondoiak banatuko dituzte.



HORMIGOI ETA ZUREZKO EGITURA  
DUTEN ETXEBIZITZEN PROIEKTU ETA  
ZUZENDARITZA TEKNIKOAK

Fernando Orset Mauleon arkitektura  
Frain Auzoa, 27 IGANTZI 615 700 007

BORTZIRIAK expert

%20  
DESKONTUA  
SUKALDE  
ALTZARIETAN

KONPONKETAK ere egiten ditugu

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091  
info@bortziriak.com . www.bortziriak.com



GIZARTEA → UZTAILAREN 7TIK ABUZTUAREN 1ERA

# Hemeretzi haur eta gaztetxok udaleku irekietan parte hartuko dute

Hiru begirale haur taldearekin lanean ariko dira

Nerea ALTZURI

Udan sartuta, haur eta gaztetxoek bi hilabete pasatzeko oportunitateak ditugu. Irailaren hasierara bitarteko, ederki pasatzeko aukera izanen da herrian ere. Bortzirietako Euskararen Mankomunitateak Dindaia Fundazioarekin batera antolatutako udaleku irekietan aurten hemeretzi haur eta gaztetxo eta hiru begirale izanen dira.

Sekula baino talde haundiagoa izanen da aldi honetan eta uztailaren 7tik abuztuaren lehenenera, astelehenetik ortziralerara, 10:00etatik

13:00etara herriko gimnasioan bilduko dira. Hala ere, eguraldiaren arabera, barreneko ekimenek gain, kanpoko jarduerak ere egingen dituzte. Euskaraz ongi pasatzea dute helburu udalekuak eta bertze egunetan bezalaxe, oraingo honetan ere, hila-bete mugitua heldu zaie.

## Barnetegiak Aterpean

Uda ailegatu orduko, AEK-ko barnetegiak izaten dira. Arantzako Aterpean, guziaz prest dago uztaila eta abuztuaren barnetegiak hartzeko. Uztailaren 7tik aitzine-  
ra, lau barnetegi izanen dira, lau hamabortzal-ditan banatuta. Aterpean ostatu hartuko badute

ere, eskoletako geletan alde teorikoa jorratuko dute; herriko ostatu-tan hameketako eta tra-goxxak; herriko dende-

tan erosketak; eta azken finean herritarrekin har-tuemanean, herriko hainbat ohitura eta ze-  
regin ikusi eta ikasteko

aukera izanen dute. Bi-denabar, klaseetako al-de teorikoa praktikara eramanez dute euska-  
raz solastuz.



ARGAZKIAK: JOSE RAMON AMOROS ETA IGOR UGALDE

## Arantzaren esku(h)artzea

Joan den ekainaren 8an, Gure Esku Dago erabakitze eskubidearen aldeko giza katean dozenaka arantzatar izan ginen. Ia bi autobus bete ziren herritik, eta eskualdeko bertze lagunekin batera, Itza herri inguruko errepide bazterrak ederki bete ziren. 08:30ean abiatu eta batzuk bazkalordurako etxera itzuli ziren. Bertze batzuk, berriz, Iruñeko bestan parte hartu zuten eta afalordurako etxeranzko bidea hartu zuten. Eguraldi eguzkitsua lagun egun paregabea izan zen, efemeridetan apuntatzeko modukoa.

## Ba al zenekien

**Aurtengo Arantza Rock jaialdia prestatzen burubelarri dabilela Gazte Asanblada. Abuztuaren 23an egingen da eta bortz musika taldek parte hartuko dute. Laster informazio gehiago emanen dugu.**



**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRIUN

948 631 218  
Kanttonberri 1, BERA  
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

# KATEA-BIKE



**Javier Manterola**  
Tehniko instalatzailea  
Iturgintza • gasa  
kalifikazioa  
Tfnoa: 629449602 • BERA

**3Beko**  
JARDUEN KONTROLERIA  
Frain Auzoa • LESANA  
Tfnoa: 948 637 826

# SUNBILLA

GIZARTEA → IIRAILAREN 15A BITARTE

## Uda ailegatu denaren seinale igerilekuak ireki dituzte

Hainbat ikastaro eskainiko dituzte

**Maider PETRIRENA**

Udara ailegatu berri zaigun honetan, urtero bezala udal igerilekuak bere ateak ireki ditu. Ekainaren 15tik irailaren 15 bitarte, eguerdiko 12etatik arratsuko 8etara egonen da zabalik.

Hainbat ikastaro ere prestatu dituzte aurten. Igeriketa ikastaroak izanen dira 5-6 urtekoen-dako astelehenetik ortziralerara, 11:25etik 12:00etara eta 7-12 urte artekoentzat, astelehenetik ortziralerara 10:45etik 11:25era. As-

tea 25 euro, bi aste 45 euro, hiru aste 65 euro, lau aste 80 euro eta bortz aste 90 euro.

Aquagym ikastaroa astelehen, asteazken eta ortziraletan 20:00etatik 20:45era emanen dute. Hamabostaldia 20 euro eta hilabetea 30 euro kobratuko dute. Lehenbizikoa ikastaroa ekainaren 30etik uztailaren 14ra eta bigarre-na uztailaren 16tik abuztuaren 1era izanen dira.

Mantentze Gimnasia Uretan ikastaroa astearte eta ortzegunetan 11:15etik 12:00etara eskainiko da. Lehenbiziko ikastaroa uztailaren 1etik 15era eta bigarre-na uztailaren 17tik 13ra izanen da. Hamabostal-



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Dantza-taldearen ikasturte bukaera

Dantza-taldeak ere amaiera eman dio ikasturteari eta hori ospatzeko Marikruz irakasleak berendu batera gonbidatu ditu haur eta gaztetxo guztiak.



ARGAZKIA: GORETI ANZIZAR

### Sunbildarrak Gure Esku Dago giza katean

Ekainaren 8an ospatu zen Giza Katean, sunbildarrak ere luzatu zituzten beraien besoak 123 kilometroko kate hori osatzeko, hain zuzen ere 108. kilometroan.

diko prezioa 20 euro eta hilabetekoa 30 euro izanen da.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Ekainaren 15ean, Mendaur eguna izan zen eta bertara ohitura bezala zonaldeko jende pilla joan zen, horien artean sunbildar andana. Lainotuta zegoen goiz partean baina arratalde partean altsa eta giro ezin hobea izan zen egunaz gozatzeko.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Trikitixa eskolaren kurtso bukaera

Mendaur Trikitixa eskolak kurtso bukaerako kontzertuak eskaini zituzten. Sunbillako haurrek ekainaren 4an iegin zuten emanaldia, Ituren, Aurtitz eta Zubietako ikasleekin batera. Argazkian, Saray, Lارا, Magaly, Iradi, Maialen, Naroa, Iraide eta Garaine ageri dira.

### Ba al zenekien

Iker Mariezkurrena sunbildarra Lekeitiko XXXVI Ikurriñan, Hondarribiko arraun taldearekin txapeldun suertatu zela ekainaren 7an





## NARBARTE

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 7AN

# Giro bikaina izan zen Narbarteko Egunean

Guraso  
Elkarteak  
antolatua

**Martin BERTIZ**

Eguraldiak lagundu-ta ekainaren 7an egun ederra izan genuen herrian. Hasieratik nabaritu zen bestarako gogoaz bazegoela. Eguna haurtxoendako jokuekin hasi zen eta dantzari, marrazten eta jostailuekin aritzeko aukera izan zuten. Aldi berean, hamarrek aldera

frontenis txapelketako finalak jokatzen hasi ziren, lehenik emakumezkoak eta ondoren gizonezkoak.

Ordu bietarako sagardotegi mobilak dena prest zuten eta jendea bazkaltzen hasi zen. Bazkari eder eta luze baten ondoren, giroak ostatu atzekaldeko patioan jarraitu zuten. Bertan orkestrak bere musika tresna guztiekin eta ostatu Txemak eta Barbarak eguraldia probetuz jarri zuten ostatu tiiki batekin giro ezin



ARGAZKIAK: MARTIN BERTIZ

Argazkian ageri denez, eguraldi bikaina lagun zela ospatu ziren Narbarteko Egunaren ekitaldi guztiak.

hobea lortu zen. Zazpiak aldera fronteniseko txapeladunari sariak ba-

natu zitzaizkien eta afaltzeko xolomo eta xingar bokatak izan ziren.

Besta bakoitzak nahi izan zuen arte luzatzeko modua izan zen.

## GIZARTEA

HITZARMENA → EKAINAREN 10EAN ERREGISTRATU ZUTEN NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAN

# Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko ikastetxeen kudeaketa finantziatzeko hitzarmena

Hogei udaletako ordezkariak erregistratu dute, tartean Baztan, Leitza eta Berakoak

**TTIPI-TTAPA**

Haur-Hezkuntzaren troen jabe diren Nafar-

roako hogei udaleko alkate eta zinegotziek Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko ikastetxeen kudeaketa finantziatzeko hitzarmena erregistratu zuten ekainaren 10ean Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuan. Heldu den ikasturterako Nafarroako Gobernuak proposatzen duen finantzaketan, Departa-

mentuaren diru-ekarpena lege dagokionaren %70era murriztuko litzake eta «horrek zerbitzuaren jarraipena arrikuan» jartzen duela salatu dute.

Haur Hezkuntza zen troak dituzten Agoitz, Altsasu, Arbizu, Atarrabia, Baztan, Bera, Berriozar, Betelu, Carcastillo, Cascante, Eguesibar, Esteribar, Gares,

Huarte, Iza, Lakuntza, Leitza, Lodosa, Oltza, Orkoien eta Uharte Arakilgo udal ordezkariak Eguesibarren bildu ziren maiatzaren 20an, hitzarmen bateratua lantzeko eta haxe izan da Nafarroako Gobernuan aurkeztu dutena.

Udal ordezkari guztiek bere ezinegona eta kexua adierazi dute Departamentuak na-

hi duen diru murrizketarengatik. Nafarroako Gobernuari dagokion %100aren diru-jartzea bermatzen duen hitzarmena aurkeztu dute eta ahobatez adierazi zuten, «etorkizunerako ikasturteetarako Haur Hezkuntzaren finantzazioa ikasturte bakoitzeko hasiera baino lehendik bermatuta egon behar duela».

# DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 20AN

## Hamar urte bete ditu Anasaps-Dizdira elkarteak herrian

Ibilbide historikoa, merendua eta ospakizuna egin zuten

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Osasun Mentalerako Elkartearen baitan dagoen Anasaps-Dizdira elkarteak hamar urte egin ditu herrian. Bulegoa ireki zueneko hamargarren urteurrenako ospakizuna ekainaren 20an egin du.

Ortziral arratsalden ibilbide historikoa, merendua eta ospakizuna egin zuten udaletxe azpiko frontoitxoan.

Ekainaren 26an, berriaz, ortzegun arratsal-

deko 07:30ean hasita, *Osasun mentalak sortzen duen estigma* so-lasaldia eskainiko dute Berako Beralandetan.

### Igerilekuak

Udal igerilekua ekainaren 14tik irailaren 7ra arte egonen da zabalik. Denboraldi osoko abonoa 47,15 euro da 18 urtetik goitikoentzat, 33,30 euro 13-18 urtekoentzat eta 14,40 euro 6-12koentzat. Eguneko sarrera edo uztai-lean eta abuztuan hila-beteko abonamendua egiteko aukera ere bada eta familia ugariak eta %60tik goitiko ezintasuna dutenak bonifikazioak izanen dituzte.



### Ba al zenekien

**Santi San Miguel eta Ana Zelaieta senar-emazteak izan zirela herritarrik bizkorrenak Doneztebeko kro-sean eta Unai eta Saioa seme-alabek irabazi zutela infantil eta benjamin mailan. Familia kirolzalea, dudarik gabe**



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

### Erreka dantza taldearen ikuskizun berezia

Denbora aunitzean atzenduko ez den ikuskizuna eskaini zuten ekainaren 14an Erreka Dantza Taldeko neskek. Hilabeteko lanak bere saria izan zuen, eta horrela eskertu zuten kiroldegia bete zuten 600 pertsonak. Emanaldi ikusgarria eskaini zuten eta jendeak txalo zaparrada batekin eskertu zuen beraien lana.



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

### 400 lagun Malerrekatik Gure Esku Dago Ekimenera

Doneztebetik 6 autobus bete-beteta Gure Esku Dago ekimenaren 108. kilometroa betetzera abiatu ziren ekainaren 8an. Malerrekatik 400 lagun baino gehiago ziren eta Baztan eta Bortzirietakoekin bat eginda 1.300 baino gehiago elkartu ziren. Dena bikain joan zen, 107. kilometroko zati bat ere betetzen lagundu zuten bertaratu zirenek. Txalaparta, joaldunak... dena jai giroan: hamaiketakoak, argazkiak, txaloak... 11:45ean alarma piztu zen, 109. kilometroan jendea falta zen. Une hartan kilometroko arduradunek erabaki zuten suge urdin hura mugitu eta luzatu behar zela hutsune hori betetzeko. 10 minutuz eta joaldunen erritmoan suge urdina mugitu zen eta eguerdirako, altxaferoa piztu zenean ka-tea erabat osatuta gelditu zen. Aipatu behar da egun horretako antolakuntza bikaina izan zela, jendeak ederrekin errespetu zituela emandako aginduak eta horrela kotxe eta autobusak arrunt ongi kudeatu zirela. Ea egun horretan bizitutakoak, amets zoragarri honek, kimu honek, etorkizunean fruituak ematen dituen.

## APARAN, S.A.

**ERIKOLAIA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagaiak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

Orain ere Eroski City-n

**EROSKI city**

Nagusia, 17 - T. 948 450 589  
Zazpigurutze, 8 - T. 948 456 152  
**DONEZTEBE**

orain Donezteben!

T. 948 456 152  
Zazpigurutze, 8 - **DONEZTEBE**



## KIROLA

Joxe Ezkurra Memorialaren finalak larunbatean Donezteben

### TTIPI-TTAPA

Ekainaren 28an jokatuko dira Ezkurra Memorialaren finalak Doneztebeko pilotalekuan. 09:30etik aitzinera.

**Benjaminetan**, Arri-llaga-Zubizarreta (Lazkao), Otxoa-Rivasen (Txukun Lakua) kontra. **Alebinetan**, Igoa-Perez (Ardoi); Labaka-Alberdiren (Ilunpe).

**Infantiletan**, Aranguren (Usurbil)-Sein (Oiarpe); Telletxea (Erreka)-Apezetxea (Umore Ona).

**Kadetetan**, Salaberria (Erreka)-Moreno (Titin III); Garcia-Cordon (Oberena).

**Jubeniletan**, Arizabalaga-Urizar (Markina), Bakaikoa-Medina (Erreka).

Erremonte partidaren bat jokatuko da gero.

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 14AN

# Giro bikaina izan zen Herriko Ostatuaren bigarren urteurrenean

14 eskulangilek beraien lanak erakutsi zituzten

### Mattin LARRALDE

Egun bikaina izan zen ekainaren 14a. Aitzineko alean agertu bezala, Herriko Ostatuak bere bigarren urteurrena ospatzeko egitarau zabalak prestatu zuen. Goizpartean eskulangileek beraien lana eskaini zuten. Jende aunitz bildu zen, batzuk kanpotik etorritakoak eta aholkuak ematen zituztenak ere bazeuden. Denera, 14 bat postu jarri zituzten eta bi herritarrek, birziklatutako gauzekin egindako eskulanak ere erakutsi zituzten. Saltzaileek euren eskaintza egin zuten eta azo-



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Herritarrek ere erakutsi zituzten birtziklatutako gauzekin egindako eskulanak.

ka gisako giro polita izan zen herrian. Ondoren, 14:00ak aldera, trikiti-xak alaiturik Angeluxtoa izan zen ardoz eta edariz ongi bustua, Baco jainkoari eskainia. Gero, herri bazkaria izan zen eta arratsaldea ere giro politean joan zen.

Arratsalde-gau partean, La Jodedera taldeak kontzertu mundiala eskaini zuen. Kubatar kanteak euskaraz abestuta ere bere xarma ez dutela galtzen erakutsi zuten taldekoek. Segidan parrillada izan zen eta gero, giro

polita jarri zuen Tororo DJak.

Eskerrak eman behar zaizkie Herriko Ostatuko kideei, hain egun polita eta herrikoia plantatzeagatik. Mila esker Itsaso eta Xabi eta euren laguntzaile Luxio eta Ferminari, segi horretan!

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Erreka, igerileku eta hondartzarako toallak**

edredoi fundak • albornozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toallak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

## ITUREN

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 15EAN

# Herritarrek parte hartu dute hainbat festa eta ekimenetan

Goizeko mezak, enbaltseko bazkaria eta gaueko dantzaldia

## Arkaitz MINDEGIA

Euskal Herriko xoko eta bazter guztietan berrera gure herrietako neska eta mutilak. Haur, gazte eta helduak gus-tura ibili dira bestan.

Gure esku dago ekimenarekin bat egin zutenak aunitz izan ziren, batzuk artisau eta azokan kilometroa erosita, bertze batzuk bertze tokiren batean erositakoak... Horiez gain, Ituren-go joaldunek ere ez zioten hutsik egin hitzorduari. Beraien joarien soinuak zabaldu zituzten 108. kilometroan, Itza inguruan.

Joare soinuak ez ziren Itzan bakarrik entzun, urtero joan ohi dira Beasaingo herriko bestetara. Bestetako bigarren asteburuan, igande goizez, beraien soinuekin beasaindarrak ernatu edo dagoeneko karriketan dabil-zanak animatzen dituzte, beraiekin batera herriari itzulia emateko. Joare soinuekin segituz

Ituren-go joaldun ttikiek ere beraien ekarpena edo laguntza egin zuten Enaitz lagundu elkartasun egunean. Itzulia egin zuten Beran zozketa egin baino lehen. Azer nolako indarra eta gogoia erakutsi zuten gazteek!

Akitzeko, gure herriko dantza taldeko neskatxak ekainaren 14an Irurtzunen ospatu zen Nafarroako dantzari egunean parte hartu zuten. Hainbat eta hainbat dantza talde izan ziren bertan. Gure dantzari fine Irurtzunen dantzatzea tokatu zitzaizen Paloteado de cortes, Garaztarrak (Donibane garazi), Makaia (Faltzes), Lantz eta Luzaideko dantzarekin batera. Gero bukatzeko dantza talde guztiek Irurtzungo herriko plazan elkarrekin hainbat dantza dantzatu zituzten.

## Pulunpa eskolako ikasleek ikasturtea amaitu dute

Dagoeneko gure herriko haurrak herriko xokoetan barna dabil-tza han eta hemen jolasean, erreketan edo igerilekuetan beraien bus-tialdiak hartuz, nabari da oporretan daudela.



Ekainaren 20an bukatu zuten Pulunpa eskolako ikasleek aurtengo ikasturtea besta eder batekin. Bertan gisa guztietako ikuskizunak eskaini zituzten haurrek eta bazkari baten bueltan elkartu ziren gero guraso, irakasle eta haurrak.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Euskararekin egin dezagun bidea

Trikidantz taldeak *Euskaraz bizi eta ikasi* diskan parte hartu du, *Euskaraz egin dezagun bidea* abestiarekin. Eneko Fernandez lesakarraren laguntza eduki du letra egiterakoan. Euskaraz bizi eta ikasi nahi dut plataformak eraman du aurera egitasmo hau. Diska honekin Nafarroan, eremu ez euskaldunean euskaraz ikasten ari diren ikasleen egoera zabaldu nahi da eta laguntza ere luzatu nahi zaie. Kilometroak egin behar izaten dituzte egunero, beste herrietara joanaz, beraien herrietan ez dutelako D ereduaren ikasteko aukerarik. Trikidantzez gain, hainbat taldek hartu dute parte diskan: Lehiotikan, Bolbora, Non Nahi, Marianitoz blai... eta kolaborazioak ere badira: El Drogas, Komako abeslariak... parte hartu dute. Diska 5 eurotan dago salgai eta Euskal Herriko Txoko ugaritan egonen da erosteko aukera, baita Trikidantzen kontzertuetan ere. Animatu, zure laguntzarekin euskaraz bizi eta ikasten lagunduko baitiezu!



GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUARI

## 1.600 liburu dohaintzan eman ditio Juainas Paulek

Bere liburutegi  
pribatukoak

### Fermin ETXEKOLONEA

Nafarroako Gobernuak, aspaldiko urteetan Zubietan bizi den Juan Ignacio Paul Arzak donostiarraren liburutegi pribatua jaso du dohaintzan. Bidasoa Ikerketa Zentroari lotutako ikertzailea da Juainas eta Ttipi-ttapako laguntzaile aspaldiko urteetan. Liburutegia 1.600 alek baino gehiagok osatzen dute; azken hamarkadetan egindako ikerketa-lanen emaitza da.

Aleen gaiak eta edukiak direla-eta, bilduma bibliografiko interesgarria da, eta jabeak bizi-tzako hainbat etapatan izan dituen gustuen eta zaletasunen isla da. Liburuen bilduma osatua da bilketa-lan handia egin delako, eta lan ho-

ri ezinbestekoa izan da jabearen prestakuntza intelektuala aberaste-ko, sorginkeria eta euskal landa-bizitzari buruzko ikerketak egiteko eta irakasle gisa izan zuen lanbidean aritzeko.

Dohaintzan emandako liburuen gai nagusiak, historia, filosofia, politika, soziologia, antropologia, etnografia eta ekonomia dira. Gehienak estatuan argitaratutakoak dira, baina badaude Argentina, Mexiko, Kuba, Guatemala, Brasil eta Venezuela bezalako herrialde latino-amerikarretan argitaratutako aleak ere. Era berean, gaztelaniazko liburuak dira gehienak, baina euskarazkoak ere asko dira, baita, frantsesez, katalanez, italiaraz eta polonieraz argitaratutakoak ere.

Bilduma bibliografikoa Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren par-



ARGAZKIA: ANDREW SMITH

### Uritzako fiestak 40 bat lagun bildu zituen

Berrogei bat lagun elkartu ziren ekainaren 7an Uritzako festan, bederatzigarren urtez. Iturri inguruan jarritako aterpean bazkaldu zuten eta Joxemi Arbelaitz eta Iñaki Sanchezek prestatu paella ederra jan zuten, giro bikainean. Hiru bikote aipatzekoak dira, antolaketaren zama handiena beraiek izaten dutelako: Mari Joxe Otxandorena eta Mikel Loiarte, Anita Hualde eta Marcos Juanikorena eta Ines Gereka eta Iñaki Sanchez. Borondate eta umore onean egiten dute lana. Hamargarren urteurrenaren harira zerbait berezia prestatzen ere hasitekotan omen daude.

te izango da hemendik aurrera, eta instituzio horrek babestuko du. Une honetan aleak katalogatzeko lanak hasiak dituzte, ikertzaileen esku ahalik eta azkarren jarri ahal izateko.

### Gure esku dago

Gure esku dago arrakastatsua izan zen. Herri-rik 30 lagunetik goiti joan zen eta gustora ibili ziren besteen artean. Joaldunak ere bertan izan ziren, iturendarrek batera.

### Ba al zenekien

Beñat Etxekolonea Diezek bigarren saria eskuratu duela Baztan-Bidasoaldeko XXVII. bertsopaper lehiaketan, 15-18 urte artekoen mailan, *Euskara* izeneko lanarekin

### Trinitate Eguna

Ohitura zaharrei eutsiz Mendaurren ere hurbildu ziren herritarrak Trinitate egunean. Enbaltse inguruan bazkaldu eta arratsalde-gau partean Iturenen festa egin zuenik ere izan zen noski.

### Auzolanak

Auzolanak egin dituzte ekainaren 14an. Herri inguruak txukundu, mugitutako eta hautsitako losak moldatu eta txukun jarri eta euriteek hondatutako pistak ere egokitu zituzten herritarrek.



Koskontako bidea, 7 - 1  
31770 LESAKA  
T. 948 635 458  
www.ttipi.net  
info@ttipi.net



ttipi txartela  
harpidetza bako  
merkeagoa da



## GIZARTEA

HITZARMENA → EKAINAREN 9AN SINATU ZEN

# Arkupeak elkarteak ere bat egin du Gente 3.0 programarekin

Nafarroako Gobernuak eta La Caixak programa bultzatzeko hitzarmena sinatu dute Donezteben

Fernando ETXEBERRIA

Nafarroako adintuen zahartze aktiboa eta osasungarria bultzatzeko helburuarekin eratu den Gente 3.0 programa sustatzeko elkarlan hitzarmena sinatu zuten Nafarroako Gober-

nuko Gizarte Politiken departamentuak eta La Caixako Gizarte-Ekintzak ekainaren 9an. Doneztebeko Arkupeak elkartearen egoitzan eman zuten sinadura Iñigo Alli, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiken departamentuko kontseilariak eta Ana Diez Fontana, La Caixako Nafarroako zuzendariak. Arkupeak elkarteak ere hitzarmenarekin bat egin du, Pedro Bañares presidentearen sinaduraren bidez.

Eskualdean 2.600 bazkide dituen Arkupeak elkarteaz gain, Iruña, Lizarra, Tuter, Ba-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Gente 3.0 programaren hitzarmena sinatzen Bañares, Diez Fontana eta Alli.

rañain eta Atarrabiako adinekoen elkarteek ere Gente 3.0 programarekin bat egin dute. Joan den urtean 76 jarduera egin ziren programa honen baitan, 1.127 pertsonen partehartzearekin.

Zehazki, Gente 3.0 programaren bidez, Informazio eta Komunikazio Teknologia Formakuntza sustatzen dute, baita gizarte partizipazioa eta Boluntarioria ere. Modu bere-

an, Osasuna eta Ongizatea sustatzeko tailerak ere egiten dituzte.

Arkupeak elkarteak hitzarmen honi buruz eta irailetik aurrera ekaneko dituen jarduerak, kurtso eta solasaldien gaineko informazioa eskainiko du.

## BIDAIA GEHIAGO

Ekainaren 19an Zaragoza bisitatzeko bidaia egin zuten 120 bazkidek. Castejoneko gelditu ondok, Aragoi-

ko hiriburua autobus panoramikoan ikusi zuten. Besteak beste, Expoko rezintoa, La Seo, Aljaferiako jauregia... Bazkalondan ere monumentu gehiago ikus-teko edo pasiatzeko aukera izan zuten bazkideek.

Aipatzekoa da Europan barna irailean eginen duten bidaiarako 95 lagunek eman dutela dagoeneko izena eta beste 8k Puente Viesgora joateko.

GIZARTEA → BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUAK

# Jubiloteka zerbitzua zabalduko da

Beran uztailean ere eskainiko dute lehen aldiz eta Lesakan heldu den ikasturtean hasiko da eskaintza Harriandoan

TTIPI-TTAPA

Ikusita Jubilotekek izan duen harrera ona, Bortzirietako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, zerbitzua zabaldu erabaki du. Honela, Beran orain arte udan etenaldia egiten zuen zerbitzua aurtu uztailean ere eskainiko da. Gainera, Lesakan, irailetik aitzinera



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Arrakasta ikusita, udan zerbitzua egondu da Beran eta irailetik aitzinera baita Lesakan ere.

zerbitzua eskainiko dute, astearte eta ortzegunetan.

Zehazki, Harriando Kultur Etxeko Zumarra aretoan eskainiko da 10:00etatik 13:00etara irailaren 2tik aitzinera. Hileroko kuota 20 eurokoa izanen da eta izen emateko edo informa-

zioa jasotzeko 948 635036 telefonora deitu edo [ssb@lesaka.net](mailto:ssb@lesaka.net) helbide elektronikora idatzi behar da.

Mankomunitatearekin batera, Osasun Zentroak antolatzen du zerbitzu hau eta Beran bezala, alderdi fisikoa, alderdi kognitiboa eta al-

derdi soziala eta ludi-ko landuko dituzte Lesakan ere.

Horrela Jubiloteka zerbitzua, Bortzirietan egunero eskainiko da 2014-15 ikasturtean: Beran astelehen, asteazken eta ortziraletan eta Lesakan astearte eta ortzegunetan.



IKASTAROAK → ABUZTUAREN 11TIK AZAROAREN 3RA

# Kirol jardueren teknikari ikastaroa eskainiko dute Lesakako kiroldegian



16 eta 25 urte  
arteko ikasle  
eta langabetuei  
zuzendua

## TTIPI-TTAPA

16 eta 25 urteko eskualdeko langabetuei zuzenduta, kirol jardueren teknikari ikastaroa eskainiko dute Lesakako kiroldegian, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Formakuntza Planaren baitan, Urdi Formakuntza eskolaren eskutik. 300 orduko ikastaroa doan izanen da, abuztuaren 11tik azaroaren 3ra, astelehenetik ortziralerara, 09:00etatik 14:30era.

Ikastaroan parte hartzen dutenek, Europan eskatuko den Profesionaltasun Ziurtagiria eskuratuko dute, 'Taldekoko egokitzapen fisikoa musika sostengua-rekin' arloan. Bertzeak bertze, kiroldegietan aritzeko, edo spinning, aerobik edo fitness ikastaroak emateko beharrezkoa izanen da ziurtagiri hau. Beraz, 16 eta 25 urte arteko ikasle edo langabetuendako lan aukera izan daiteke.

Izen ematea uztail erdira arte egiten ahal da, Doneztebeko Enplegu Bulegoan edo Urdi Formakuntza Eskolan (948 101 625 telefonoan edo [escuelaformaci@urdisl.com](mailto:escuelaformaci@urdisl.com) helbide elektronikoan) eta hogei lagunenendako lekua izanen da.

ORAIN DA  
**UNEA.**

BIHURTU  
ERRENTAGARRI  
ZURE AURREZKIAK  
RURAL KUTXAREKIN

Zure aurrezkiatarako errentagarritasun handiagua bilatzen ari bazara, zaituz Rural Kutxara. Gausa interesgarri bat kontatu behar dizugu.

Errentagarritasuna hobetzeko proposamen ugari daukagu zure aurrezkiak modu aktiboan lundatzeko, espere ditzunari egokitzeko zailkoenak. Tratatara profesionala ematen diugu zure diruari.

Zaituz Nafarroako Rural Kutxara. Zain izango gaituzu.

[www.cajanunaldienavarra.com](http://www.cajanunaldienavarra.com)

## EZKURRA

## ERATSUN

GIZARTEA → ESKOLAKO LANEKIN ERE HASI DIRA

# Ermitatik Perralekura joateko bidea irekiko dute

Boluntarioak ari dira lanean eta uztail hondarrerako bukatzea espero dute

**Fernando ETXEBERRIA**

Duela denbora denbora erabaki zuen herriartalde batek, Ezkurako ermitatik Perralekura joateko bide berri bat irekitzea, zehazki Matxintxulotik barna pasako zen bidea. Azkenenean, boluntario talde bat Hilario Telletxearen gidaritzapean, ideia aurrera eramaten ari dira. Hiru zubi berri eraiki dituzte eta horrela, bi kisulabe, ur-jauzi haundi bat eta Garaikoetxea bordako iturria bisitatzeko aukera izanen da. Ur-jauzira iritsi ahal izateko azken lanak bukatzea bakarrik falta zaie: bidexka berri bat egin, zubi berri bat eraiki eta erreka bide-ratu behar dute euri asko egiten duenean gainezka egiten duelako. Uztail bukaerarako azken lan hauek bukatu eta bide berria irekitzea aurreikusten dute.

## BIDEA PAUSOZ PAUSO

Ermitatik abiatu eta aldapetarantz jeisten da bidea eta segidan zubi tiki batetatik pasa behar da. Aurrerago beste bi zubi daude, baina ez da beharrezkoa hauek igarotzea, dena den nahi duenak zubiak pasa eta ibilbide luzeago bat egiteko aukera izanen



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Goian, bidean ikus litekeen kisulabeetako bat. Behehian, herriartalde boluntarioek egindako zubia.

du, bi mende baino gehiago dituzten gaztainondoetan barna. Bide arrunta, Osine putzuren goiko aldetik doa eta ordu erdi ondok, Txurdienea bordako kisulabea iritsiko dira. Momentuz, hemendik ezin da ur-jauzira joan baina boluntarioek beste bidexka bat zabaldu dute kisulabearen eskuineko aldetik, Garaikoetxea bordara igotzeko. Bertako iturria ura edan eta atseden tiki bat hartzeko leku proposa da hau. Hamar minutuz oinez ibili eta Perralekura iritsiko dira. Gero bi aukera daude, Ezkurra-

ra itzultzea pistan barna edo Erakurrira garman bidea hartzea eta kilometro baten buruan, uraren deposituaren beheko aldetik Ibia baserriera joatea. Baztanea bordara doan pistatik segiz. Herrira hilerri eta elizako bidetik iritsiko lirateke edo Matxinea eta garbitegi ondok.

## Eskola berritzen

1999an ateak itxi ondok eraikinaren egoera txarrera joan da eta batez ere teilatuak jasan ditu kalterik nabarmenenak. Udaletxeak aspalditik zeukan konpontzeko asmoa baina

krisiaren eta dirulaguntza gabeziaren ondorioz, atzeratu egin dira obrak. Azkenean aurtan jaso dute espero zen diru laguntza.

Lau eraikuntza enpresek aurkeztu zituzten euren proiektuak eta azkenean, Betilan enpresari eman zioten obra egiteko arduraren eskaintzarik oherena berea zelako. Iraila bukaerarako teilatu berriko lanak bukatu eta eraikinaren aurrealdea txukuntzea espero dute. Aurrerago eraikina barrutik nola berritu eta zertarako erabili aztertu beharko da.

## KIROLA

Berriz ere Retegitar bat izanen da buruz buruko finalean

## TTIPI-TTAPA

Ezkurdiaren kontra sufituta sartu zen final laurdenetan; gaur egungo txapeladuna den Aimar Olaizola kanporatu zuen finalerdietan sartzeko eta Idoateri 22-14 irabazita lortu du Julen Retegik eskuz banakako pilota txapelketaren finalerako txartela. Juan Martinez de Irujo izanen du arerio ekainaren 29an Donostiako Atano III.ean jokatu den final handian.

Pilotaren historia hizki larriz idatzi duten Julian aitaren eta Juan Ignacio aitaren osabaren bidea segitu du Retegi Bik ere. XXI. mendean lehen aldiz, eratsundarra eta Retegitarra izanen da buruz buruko finalean.





## GOIZUETA

GIZARTEA → KIROLA EGITEKO AUKERA BERRIA

# Gimnasioa ireki du Behekolandan Udalak

Bazkideek urteko 25 euroko kuota ordaindu beharko dute

### TTIPI-TTAPA

Orain arte herrian inoiz izan ez den zerbitzua ireki berri dute Behekolandan, Asinko inguruko nabe batean: udal gimnasioa. Oraingoz, muskulazioa lantzeko tresna batzuk jarri dituzte eta hasiak dira lehenbiziko herritarrek bazkide egiten. Hain zuzen, urte osorako bazkide egitea 25 euro kobratuko da, baina urte erdia joan dela kontuan hartuz, horren arabera ordainduko dute bazkideek aurtengoa eta 2015 urte hasieran eginen zaie urte osoko kobraketa.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

### Aralar Musika Eskolako kurtso bukaerako kontzertua

Aralar Musika Eskolako ikasle goizuetarrek ikasturte bukaerako kontzertua eskaini zuten ekainaren 12an Udaletxeko arkupetan. Jendetza bildu zen ikasturtean ikasitakoa entzuterako eta musikariak eta entzuleak gustora gelditu ziren.

Gimnasioa erakutsi eta erabiltzeko azalpenak ekaineko asteazketan ematen ari dira, herritarrek zerbitzu berria ezagutu eta eskura zein baliabide dituen ja-

kin dezaten. Beraz, hemendik aurrera ez da esaterik izan Goizuetan kirola egiteko frontoiak, erreka eta mendia bakarrik dugunik. Gimnasioa ere bai.

### Reiki ikastaroa uztailaren 19 eta 20an

Amaia Artze Reiki maisuaren eskutik lehenengo mailako Reiki ikastaroa izanen da uztailaren 19 eta 20an, larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara eta igandean 10:00etatik 14:00etara Udaletxeko Ganbaran.



### Pertsonaia

Antton APEZETXEA

### Irurtzunen txapelkun

Ekainaren 14an jokatu ziren Irurtzungo pilota txapelketako finalak. Infantil mailan, eskuz bina txapelkun suertatu zen Antton Apezetxea. Azpeitiako Ilunpe taldeko Iriarterekin bikote eginez, 18-10 irabazi zien Oberenako Mata eta Cuairan-i.

### ARANO

Arkume jaterako txartelak salgai jarriko dituzte uztail hasieratik

### Ainhoa ANSA

Hirugarren urtez arkume jatea egiten da Santio fiesten baitan, zehazki uztailaren 26an. Beti bezala herriko produktuekin osatu nahi dute menua eta honela, goizean goizetik burduntzian erretzen jarritako bertako arkumearekin batera, entsalada, gazta eta mamia, kafea eta kopa ere izango da. Bazkalondoa girotzeko musika ere izango da, baina hau idazterakoan ez dago zehaztua zein diren musikariak.

Txartelak salgai jarriko dituzte uztailaren 4tik 20ra Aranoko Kontsejuan, Goizuetako Amaia kafetegian, Hernaniko Bi Herriak eta Deportivon, Ereñozuko Irrintzin eta Urnietan. Helduentzat txartelaren prezioa 30 eurokoa da eta haurrentzako menu berezia ere jarriko dute, 6 euroren truke.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

### Lehen jaunartzea egin dute hamar neska-mutikok

Lehen jaunartzea egin zuten ekainaren 8an hamar neska-mutikok. Gehienak herrian bizi direnak, baina batzuk aita edo ama goizuetarra izan arren, kanpoan bizi direnak: Amaia Apezetxea, Naroa Lizarazu, Elene Lujanbio, Oihan Tomasena, Lorena Huizi, Beñat Apezetxea, Aitzol Salaberria, Oier Apezetxea, Jon Urdanpilleta eta Adur Alsua.

## LEITZA

KULTURA → ADINAREN ARABERA TALDEKA BANATUTA

# Sormensena tailerrak uztailean Atekabeltzen

Izen emateko  
epea ekain  
bukaerara arte

JM BARRIOLA

Sormena landu eta jendearen sormen sena esnatzeko asmotan, tailerrak antolatu dituzte. Uztailean izanen dira, goizez, Atekabeltz herri-gunean eta eskaintza zabala izanen da, adin desberdinetara egokitu-tako tailerrak eskainiko dituztelako. Uztailaren 1etik 3ra, 12 urtetik gorako emakumeen sormen sena esnatzeko tailerra prestatu dute. Uzta-

ilaren 7tik 10ra berriz, 3 urtetik gorako hurrek beraien Artista Liburua sortzeko aukera izanen dute elementu desberdinak margotu, moztu eta itsatsiz. Amaitzeko uztailaren 21etik 24ra, 6 urtetik gorako hurrek kaleetan zehar interesatzen zaizkien gauzak margotzeko aukera izanen dute, horretarako eginen den tailerrean.

Interesatuak izena eman beharko dute eka-in bukaera baino lehen, sormensena@gmail.com helbidera idatzita edo 677340685 edo 665244269 telefonoetara deituta.



## Ba al zenekien

**Mikel Nievek, ekainaren 15ean, Dauphine Libere itzuliko azken etapa irabazi zuela Courchevel ginean.**

## GIZARTEA

Xabier Perurenak bere lehen pelikula aurkeztuko du

JM BARRIOLA

Ekaineko azken asteburuan, bere lehen pelikula aurkeztuko du Xabier Perurenak herrian. Bi emaldi antolatu dituzte, lehenbizikoa ekainaren 27an, ostiralean 22:00etan eta bigarrena ekainaren 29an, igandea, iluntzeko 20:00etan. Grabaketa lanak Leitza egin zituzten duela bi urte eta bertan, herriko aktoreek eta Goenkaleko batzuk parte hartu zuten. Jose Migel Elozegi "Luze" k antzerkiko egin zuen gidoi baten moldaketa da. "Parle vu euskera" izena du lanak eta komedia bat da. Xabier pelikularen zuzendaria izateaz gain, aktore lanean eta montaiaz ere arduratu da. «Ilusioz egindako lana» da eta herritarren gustukoa izatea espero du.



ARGAZKIAK: PABLO FEO

## Mural berria herrian

Iratxe Beloki artistak mural bat margotu zuen Udaletxeko atzeko paretan, Aurrera Elkartearen aurrean. Artelana egiten Sagardo Egunean hasi eta hurrengo egunean bukatu zuen eta bertan lantzen den gaia emakume langileena da. Kultur Aroko ekimenen baitan osatu zuen lana eta ikusle ugari izan zuen margotzen zuen bitartean. Orain txokoa ederra geratu da eta edonork ikus dezake gainera!



ARGAZKIAK: PABLO FEO

## Sagardo eguna bikaina joan zen

Ekainaren 7an egin zen seigarren aldiz, Sagardo Eguna Leitza. 20 sagardotegitako uzta dastatzeko aukera izan zuten bertaratutakoak. Ohitura denez, 19:00etan ireki ziren lehenbiziko botilak eta guztira 1055 hustu zituzten. Pesta polita osatu zen eta plazak itxura ederra hartu zuen, jendez beteta. 800 edalontzi inguru banatu ziren. Herriko zenbait tabernak pintxoak eraman zituzten dastaketarako, zehazki: Adur, Beatrizenea, Jubi, Musunzar, Txoko, Peritza, Gaztañaga, Torrea, Zirkulo eta Sagasti jatetxeak.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Euskal dantzak Manresan bi herritarren eskutik

Euskal Herriko ikasle talde batek euskal dantzen erakustaldia eskaini zuen ekainaren 10ean Manresako (Bartzelona) Fundació Universitària del Bageseko kanpusean. Aurrera dantza taldeko kide den Mikel Oronoz leitzarrak bultzatu zuen emanaldia, unibertsitateko ikaskide, irakasle eta langileei gure kultura eta tradizioak ezagutzera emateko eta Mikel Alkoz herritarrek txistuarekin lagundu zion.



GIZARTEA → GOIZEZ, 11:00ETATIK 13:00ETARA

## Udaleku irekiak antolatu dituzte uztailaren 14tik abuztuaren 8ra

San Juan bezpera ere ospatu zen, gonbidatu sorpresa eta guzti

**Juana Mari SAIZAR**

Haurrek pasa den astean bukatu zuten aurtengo ikasturtea eta udako oporrak aprobetxatzeko hasiak dira dagoeneko. Aurten, pasa den urtean bezalaxe herrian bertan ere izango dute entretenimendua San Ferminak bukatu orduko uztailaren 14tik abuztuaren 8ra bitartean goizetan udaleku irekietan ederki pasatzeko aukera izango dutelako urrutira joan gabe. Egunero, goizeko 11:00etatik 13:00era izanen dira. Aurreko urteetan bezalaxe, monitorea arduratuko dira joku, eskulan, irteeren... antolaketaz eta dagoeneko monitorea lanetarako aukeraketak bukatzeaz daude. Irteera bereziak ere egin ohi dituzte, pasa den urtean adibidez, Leitzako Peru Harri museora eta igelrilekura ere joan ziren. Horrelako jarduerak aberasgarriak dira herriarentzat. Haurrei goizetan herrian bertan zerbait berezia egiteko aukera eskaintzeaz gain, monitorea lanetan ari zeko herriarrei deialdi

irekia egiten zaielako. Pasa den urtean oso ongi ateratu zen eta ea aurtengoan ere iazko arrakasta errepikatzen den!

### San Juan gaua

Astelehenean, ekainaren 23an, San Juan Bezpera ospatu zen herrian. Arratsaldean haurrek primeran pasa zuten, jokuak eta merendola eder bat antolatu zutelako beraientzat. Gauean herri afaria izan zen plazan, urtero bezalaxe bakoitzak etxetik janaria ekarri zuen eta udaletxeak edaria jarri zuen. Iluntzean suaren bueltan bildu ziren guztiak eta asko izan ziren suaren gainetik salto egin zutenak ere. Tartean ustekabeko sorpresa bat ere izan genuen. San Juan gaua urteko gaurik magikoenetakoa dela ez da alferrik esaten. Sua piztu eta pixka batera akelarre berezia egin zuten plazan. Herriar batzuk sorgin eta akerez mozturatu eta afaltzen zeuden herriar guztiei beren saio txoa eskaini zieten. Halakorik egiten zen lehenengo aldia zen eta gustura egon zen jendea emanaldia ikusten! Gehiago nahi duenak datorren urteko afaria arte itxaron beharko du. Dena den, datozen hila beteetan ere ez dugu izango aspertzeko betarik!



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Iazko udaleku irekietan eskulan tailerra eta Peru Harria irteera egin zuten besteak beste.



ARGAZKIA: UXUE GOIKOETXEA

### Aresoarren esku ere badago!

Handia izan da Gure Esku Dago ekimenak herrian izan duen arrakasta. Giroitzen joateko antolatu diren ekitaldiak asko izan dira eta guztietan parte hartzea handia. Eta nola ez, ekainaren 8an, egun handian, aresoarren esku ere badagoela erakutsi nahi izan zuten. Autobusean haur, gazte eta helduak Itzara joan ziren, jan edanak hartuta eta eguzkitik babesteko beharrezko guztiak ere ez ziren falta izan. Giro ederra nagusi, oroitzapen ederra gorde dute beren buruetan. Bezperan Areso eta Tolosa lotuz ibilaldia egin zuten eta eguraldi bikaina lagun, irteera polita izan zen.

# BAZTAN

BESTAK → UZTAILAREN 4TIK 7RA

## Egun handian zikiro jatea izanen dute Azpilkuetako Sanferminetan

Txupinazoaren ondotik frontenis txapelketaren finala jokatu da eta Baztanzopak izanen dituzte

### TTIPI-TTAPA

Azpilkuetan ere Sanferminak ospatuko dituzte:

### ORTZILERIA, UZTAILAK 4 BAZTANZOPAK

- 19:00: txupinazoa.
- 19:30: Frontenis txapelketaren finala.
- 21:30: Baztanzopak, Joxe Angel Elizalde alaiturik. Ondotik gaurpasa herriko plazan.

### LARUNBATA, UZTAILAK 5 HAURREN EGUNA

- 10:00: Dianak herriko karriketan barna.
- 16:00: Puzgarriak.
- 16:30: Mus tximista txapelketa.
- 17:30: Haurrendako txokolatada.
- 20:00-21:30: Dantzaldia GAU ENARAK taldeak alaiturik.
- 22:00: Tortilla lehiaketa eta afaria.
- 00:30-04:00: Dantzaldia GAU ENARAK taldeak alaiturik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Haurrek eta gazteek ederki pasatuko dute aurten ere Azpilkuetako Sanferminetan.

### IGANDEA, UZTAILAK 6 BEZPERA

- 10:00: Dianak herriko karriketan barna.
- 14:00: Gazte bazkaria.
- 16:00: Partxis lehiaketa.
- 20:00-21:30: Txutxin Ibañezekin dantzaldia.
- 21:00: Ezkil jotzea.
- 21:30: Dantza Jazz erakusketa herriko neskatzen eskutik.

### ASTELEHENA, UZTAILAK 7 SAN FERMIN EGUNA ETA ZIKIRO JATEA

- 08:00: Su piztea.
- 09:00: Gosarie.
- 10:00: Dianak herriko karriketan barna.



- 11:00: San Fermin sainduaren ohoretan Meza Nagusia.
- 12:00: Luntxa herriko elkarteak.
- 14:30: Zikiro jatea

Frantzisko Santxotekinak alaiturik.

- 21:00: Afaria eta dantzaldia Frantziskok alaiturik. Ondotik, Gaixoa Ni.

### GIZARTEA

Elizondoko Gaztetxearen 10. urteurrena ospatuko dute uztailean

### TTIPI-TTAPA

*Oraina inarrosiz geroa landu* goiburupean Gaztetxeak hamargarren urteurrena ospatuko du.

Uztailaren 1ean, asteartean 17:00etan haurrendako jostaketak izanen dituzte.

Uztailaren 2an Egun Morea izanen da Gasteizko Unibertsitateko Emakume Taldearen eskutik. 11:00etan taldearen aurkezpena egingen dute, 14:30ean bazkari autogestionatua. 17:00etan *Itxura eta autoestima* tailer eta antzerkia. Gero, *Postpornoa eta transsexualitatea* kafe-solasaldia. Talo jatea eta gero, ipuin erotikoak.

Uztailaren 3an, ortzegun goizeko 10etan ogia eta jogurtak nola egiten diren ikasteko tailerra izanen da. 19:00etan *Baztango gazte mugimenduaren bilakaera* mahai ingurua eta pintxo jatea.

Uztailaren 4an, ortziralean 20:00etan Iñaki Urrestarazuk *Inperialismoaren eta faxismoaren hedapena* Europan solasaldia eskainiko du.

Uztailaren 5ean, 14:00etan bazkaria egingen dute eta ondotik kalejira alaitua eta kontzertuak.



**4**  
LOTE  
ZOKKETATUKO  
DITUGU  
urtean zehar

# ARKUPE

**Gozotegia · Txokolategia**

Elzondo-Inurita (Nafarroa) · Tfn. 948 45 23 93  
info@arkupegozotegia.com · [www.arkupegozotegia.com](http://www.arkupegozotegia.com)





ABELTZAINZA → BELATE, ERDIZ ETA LIZARTZUN

# Inoiz baino baserritar etaazienda buru gehiago herri bazkalekuetan

Hobekuntzak egiteko 15.000 euro erabili dira

## TTIPI-TTAPA

Urtero bezala herri-bazkalekuetako udako denboraldia maiatzaren 9an Lizartzun eta maiatzaren 31n Erdiz eta Belaten hasi zen eta, azkeneko urte hauetako bideari jarraikiz Erdiz erabiliko duten baserritarren eta azien den kopuruak goiti egin du. Aurten 106 baserritarrek erabiliko dute Erdiz eta behi-buruak, 550 denera, Erdizen alatu-


Azken hamarkadetak datu hoberenak izan dira, iazko datuekin alderatuta 6 baserritar gehiago eta 50 behi buru gehiago. Gainera, aurten, lau zezen sartu dituzte. Datuek, bertze behin, Erdizeko bazkalekuak nekazaritzarako duen balioa agerian uzten dute.

Erdizekoarekin batera Lizartzun eta Belaten ere udako denboraldia hasi berri dute; bazka-

leku horiei buruz iazko datu bertsuak dira. Lehenengoratu 18 baserritarrek beren azien den eraman dituzte denera 60 behi, 85 behor eta 200 ardi buru. Bigarrenat, Belateratu, 25 baserritarrek 215 behi buru eraman dituzte eta bi zezen sartu.

Herri-bazkalekuek herriko ekonomian duten garrantzia ikusirik, Udalak, aurten ere, bazkalekuak hobetzeko erabiltzaileekin bilerak egin eta inguru horietan hainbat hobekuntza egin ditu. Honela, Erdizen Artesiagako korlerako bidea hormigoizatu da, korlean zahorra bota eta askak errepasatu dira. Hiru bazkalekuetan ongari ekologikoa hedatu da.

Bertzalde, Belate erabiltzen duten baserritarrek hala erabakirik Belateko zohikaztegiaren iskindegia berri-tu da, askak errepasatu dira eta sasitza kentzeko lanak ere egin dira. Hobekuntza lan horiek egiteko 15.000 euro erabili dira.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

1.100 azienda buru baino gehiago sartu dira aurten.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Giro bikaina Berroetako Mendekoste bestetan

Giro ederrean joan dira aurtengo Berroetako Mendekoste bestak. Eguraldiak lagun, ekitaldiz gainezka egon dira aurtengoan ere Berroetako bestak eta jende andana hurbildu da herrira. Aurtengo berrikuntza moduan, Berroetako haurrek gurasoen laguntzaz egindako erraldoi eta buruhandiak, giro polita jarri zuten herrian igande goizean. Asteleheneko Zikiro Egunean egindako XLI. bizikleta itzuliko txapelduna Imanol izan da eta XLI. asto karrerakoa, berriz, Iraitz.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Idazleekin solasean azken saioa egin dute Iruritan

Baztango irakurleen taldeak gonbidaturik Luis Garde doneztebar poetak *Maizter arrotza* bere azken aitzineko liburua Iruritan Jauregiarten aurkeztu zuen ekainaren 9an. Idazleekin solasean ekimeneko aurtengo hirugarren eta azken saioa zen eta bortz urtez lehendabiziko aldiz, poesiaritarte eskaini zitzaion. Saio honekin *Idazleekin solasean* ekimenaren bortzgarren sasoia akitu zen. Aurtengo ikasturtean Luis Gardez gain Garbiñe Ubedak Hobe Isilik eta Mikel Tabernak Alkasoroko Benta aurkeztu dute. Azken bortz urte hauetan Ernesto Prat, Jon Alonso, Alberto Ladron Arana, Garazi Kamio, Miren Agur Meabe, Uxue Alberdi, Iñigo Aranbarri, Gotzon Barandiaran, Lander Garro, Eider Rodriguez, Harkaitz Cano eta Unai Elorriagaren solasaldiak izan dira. Iruritan egindako saioan Pello Iriarte moldatzen ari den Jauregiarte ostatu-aretoan egin zen, oraino ireki gabe dago eta harat hurbildutakoek Jauregiaren lixutegi zaharrean erakitzen ari diren espazio eder eta xarmantaz gozatu ahal izan zuten. Egun baztuz beranduago, leku berean, emanaldia eskaini zuen Amairuko Gaztelu taldeak eta Jo ala Jo taldeko Xabi eta Itziar Torres txalapartariak.

# BAZTAN

GIZARTEA → EKAINAREN 19AN BALLEKO ETXEAN

## Pirinioetako 19 proiektu diruz lagunduko ditu Udalbiltzak

6.000 euroko  
dirulaguntza  
eman dio  
ekimen  
bakoitzari

### TTIPI-TTAPA

Baztango Balleko Etxean diploma eman zitzaien ekainaren 19an *Euskal Pirinioetan lan eta bizi* programaren barrenean Udalbiltzak hautatutako 19 proiektuen ordezkariak. Udalbiltzak 6.000 euroko dirulaguntza emanen die ekimen enpresarial eta

sozial haietako bakoitzari.

Ekitaldia Garbiñe Elizegi Baztango alkatearen agurrarekin hasi zen. Pirinioetako ibarren egoera zaila dela onartu ondoren, kezkatuta agertu zen Nafarroako Gobernuak ez duelako lurralde guztiaren garapen orekatuaren alde egiten. Hala ere, biktismoan ez erortzeko apustua egin zuen: «konponbidea lan egitea da, alternatibak bilatzea, gure baliabideekin politika egitea eta herritarrei aukera berri-



UTZITAKO ARGAZKIA

Udalbiltzako eta diruz lagundutako proiektuetako ordezkariak Balleko Etxearen atarian.

ak eskaintzea. Hori da Udalbiltza egiten ari dena *Euskal Pirinioetan lan eta bizi* programaren bidez, tokiko beste eragile batzuekin elkarlanean. Programa horri esker, hilabete bakar batzuetan energia positiboa sortu dugu eskualdean, eta dozenaka ekintzailearen proiektuak bultzada izatea lortu dugu», erran zuen.

Udalbiltzaren lehen dakariordea eta udal zinegotzia den Maite Iturrek Pirinioetako bizila-

gunak animatu zituen eskualde honen alde lan egiten segi dezaten. Laguntza-deialdi honetan parte hartu duten pertsona, enpresa eta erakunde guztiei beren lana eskertu ondoren, hautatu diren 19 proiektuen sustatzaileak zoriondu zituen. «Espero dugu laguntza hauek baliagarriak izatea zuten ideiak eta zuen ametsak gauzatzeko eta Euskal Pirinioak gartzten laguntzeko», adierazi zuen.

Azkenik, Mertxe Aizpurua lehendakariak Euskal Herriko garapen desorekak gutxitzen laguntzeko Udalbiltzaren konpromisoa aipatu zuen, eta horretarako bertako erakundeekin, eragile sozialekin eta herritarrekin batera lan egin nahi dutela. «Auzolanen aldeko apustua egin dugu, lan kolektiboaren alde, gizarte-sarea sendotzearen eta herritarren aktibatzearen alde, horrela, aurrera egiteko gure tresnak sortzeko».

### ESKUALDEKO PROIEKTUAK

#### Baztango xurie

Arizkunen ardo ekologikoa egiteko proiektua. 1,5 hektarea dituzte landatuak. 4 Ha.ra ailegatu eta urtean 20.000 litro produzitzeko ardandegi bat sortu.

#### Belaun

Belaun kooperatibak (Aldudeko eta Baztango sei abeltzain) gaur egun duten dendaren salmenta zabaldu nahi dute. Eraikin handiagoa egin eta komunikazio-bideak sortu hiru hizkuntzetan.

#### Aritzakungo turismoa bultzateko proiektua

Aritzakun Baztango toki zokoratuenetako bat da, baina baita aberastasun naturalistiko handienekoa ere. Benta txiki bat sortu nahi dute eta, epe ertainean, mendiko aterpe bat.

#### Zaharrakberri: Arropari bigarren bizitza

Baztanen arropa erabilia aprobetxatzeko abian jarri nahi den proiektu bat da. Fase guztiak sartzen dira. Sustatzailea: Bidelagun elkarteak.

#### Pirinioetako agerkari digital euskalduna

Pirinioetako eskualde guztian euskarazko agerkari digital bat sortzeko proiektua. Sustatzaileak: Tokikom eta zonaldeko 8 euskarazko komunikabideak.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

#### Amaiurko Dorrekobordakoei laguntzeko kontua ireki dute

Sute batek kixkali egin zuen Amaiurko Dorrekoborda ekainaren 4an. Kanpoko lau hormak izan ezik, gainerako guzia erre zuen suak. Beñardo Otondo eta Maite Iribarren senar-emazteak eta Amagoia eta Agurtzane alabak bizi ziren bertan eta hauen lagunek dagoeneko kontu bat ireki dute, familiari laguntzeko diru-ekarpenak egiteko. Elizondoko Rural Kutxan ireki dute kontua: 3008 0043 12 2938334311.



GIZARTEA → EKAINAREN 18AN AURKEZTU DUTE

# Bestetako otorduetan bertako gaiak erabili nahi dute

Hainbat herrietako besta batzordeek eta Baztandarren Biltzarrak bat egin dute ekimenarekin

## TTIPI-TTAPA

Herriko bestetan ahalik eta otordu gehienetan bertako produktuak erabiltzeko herritarren ekimena aurkeztu zuten ekainaren 18an Arizkunenean. «Baztan Tokiko garapenaren ikuspegitik eraiki daitezkeen konpromisoan eta bertako baliabideen erabilera arrazoizkoan tokiko ekonomia, gizarte harremanak, balioak indartu eta aldatu daitezkeela. Bide horretan, balio handia duen pau-

su ttikia da proposatzen duguna, herrietako bestetan antolatzen ditugun otorduetan: hameketakoak, bazkariak, afariak, merenduak, txokolatadak... Ahal dugun neurrian bertako produktuak erabiltzea: txokolatadetan bertako esnea, zikiro-jateetan bertako bildotsak, postreak...» jakinarazi zuten.

Herri bakoitzak ikusiko omen du zer otordu antolatzen dituen eta zer pausu ematen ahal dituen. Ondoko urtean konpromisoen taulak eta helburuak zehatzago ezarri eta beteko dituzte, hau hasiera bertzerik ez baita. Modu horretan, aurtengo bestetako otorduetako menuetan edo eskaintzetan ere bertako produktuak erabili ahal izateko aldaketak egon daitezke.

Ekimen hau ttikia da eta egiteko modukoa,



UTZITAKO ARGAZKIA

## Pilotarekin bueltaka egin dute Baztan Ikastolako Kultur Astea

*Pilotakin bueltaka* izenburupean, ekainaren 11tik 17ra Kultur Astea egin zuen Baztan Ikastolak. Lehenik, gaiaren aurkezpena egin zuten eta pilota modalitate ezberdinak ezagutu Juanjo Atxarekin. Horretaz gain, erremontean eta esku pilotan ari diren profesionalen ere solastu zuten ikasleek. Hain zuzen, Gorka Urtasun, Unai Apeztegia, Patxi Olazar, Aitor Zubieta, Jon Jaunarena eta Asier Olaizola aritu ziren ikasleekin solasean eta beraien galderei erantzuteaz gain, pilotak, kamixetak eta argazkiak ere sinatu zituzten. Ekainaren 12an, Pilota Jokoa ezagutu zituzten. Ekainaren 13an, 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleak Antxitonea trinketea eta Txarutako bulegoa bisitatu zuten eta Gorka Urtasunekin elkartu ziren. 5. eta 6. mailakoak Ander Ugarte pilotaegilearekin aritu ziren pilotak egiten. Ekainaren 16an eta 17an, dantza, antzerki eta musika emanaldi ezberdinak eskaini zituzten, mailaz maila banatuta.

Besta Batzordeetako kideen erranetan. «Balio handia du, konpromiso bat delako eta eragina duelako. Eragina du bertako produktuak baloratzeko, bertako produktoreak laguntzeko, herritarrei kontzientzia hartzen laguntzeko eta ohitura aldaketa ttikiak errazteko. «Pausu ttikia baina balio handikoa. Hasi gaitzen hortik herritarrei inplikatzu eta bertako baliabideak aktibatuz. Aurtengo bestetan bertako produktuak» adierazi zuten aurkezopenean.

Amaiur, Azpilkueta,

Erratzu, Arizkun, Elizondo, Lekaroz, Gartzain, Irurita, Arraioz, Oronoz, Berroeta eta Anizko besta batzordeek bat egin dute gaurgero ekimenarekin eta Baztandarren Biltzarrak ere bat egin du.

## Baztandarren Biltzarrerako zerbitzari bila

Baztandarren Biltzarrera egunean zerbitzari lana egiteko deialdia egin dute: «Zer heldu zaizu burura Baztandarren Biltzarrera egunez galditen datzutenean?

Kolore aunitzetako pentsamenduak, seguraski... Hainbertze momentu, bizipen eta sentazio sortarazten dituen besta horren gibelean, lan handia dago. Hori dela eta, *auzolanean* aitzinat eramaten den ospakizun hau gauzatzeko, zure, gure eta denen beharra dugu. Urtero bezala, bazkarian zerbitzatzeko zerbitzarien beharra dugu, animatu! Izan zaitez besta honetan laguntzen eta gozatzeko duen partaide!!! izan zaitez Baztan, izan zaitez Baztandarren Biltzarra».

**Mármoles SOULE**  
HILETA ARTEA  
T. 948 453 444 | M. 629 659 583  
ARIZKUN

**MENDI**  
ostatua  
Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

**MENDIALDE**  
Jatetxea  
T. 948 453 060 | AMAIUR  
www.mendialdea.com

**CARLOS GARAIKOETXEA**  
ETXENIKE  
abokatua  
Santiago, 57 2C | ELIZONDO  
T. 948 581 468 M. 630 354 816

**ARMUA** JATEXEA  
T. 948 599 131  
Zugarramurdi errep. 3 km  
LEIZOLAN

**ORBELA**  
BEINTZAKO OSTATUA  
Idia - Mikel  
Tel. 948 450 014  
BEINTZA-LABEIN  
www.orbela-beintza.com

# URDAZUBI

**BESTAK → GIRO EDERREAN JOAN DIRA SALBATOREAK**

## «Lasaitasuna, alaitasuna eta normaltasuna»

Herriko Etxeak 2014ko Salbatoreak besten balorazioa egin du, baina «alkoholemia kontrol sobera» izan direla uste du alkateak

**Iñigo IMAZ**

Santiago Villares alkateak Urdazubiko besten balorazioa egin du, TTIPI-TTAPARENDAKO. Alkatea pozik agertu da aurtengo besten antolaketaekin, bere iritziz «lasaitasuna, alaitasuna eta normaltasuna» izan dira ezaugarri nagusienak, «ekitaldi ezberdinetan jende aunitzek parte hartu delarik».

Gogoratu behar da Herriko Etxeak besten

antolaketa gazteen eskuetan uzten duela urtero. Aurtengo aurrekontua 6.000 eurokoa izan da, eta gazteek hainbat gauza antolatu dituzte. Udaren ardurapean antolatzen diren ekitaldiak ortzeguneko aperitifa eta bere gonbidatuei eskaintzen diren bazkari instituzionala dira.

Villaresen ustez gastronomia arloko ekitaldietan jende kopurua handia izan da eta herriko plaza jendez gainezka ikusi ahal izan dugu, nahiz eta eguraldiak ez duen gehiegi lagundu, «batez ere larunbateko Kontrabandisten lasterketan eta zikiroan». Umeentzako ekitaldietan ere jende aunitzek parte hartu duela dio Alkateak.

Udalak antolatzen duen bazkari instituzionalean 35 gonbidatu egon ziren. Besteak beste, Xaretako eta inguruetako udaletako



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko bestetan bertso-poteoa ospatu zen. Irudian, Anaxtaxiren tabernan bildutako gazteak.

ordezkariak, Nafarroako Gobernuak hainbat kide eta parlamentari, tartean Nafarroako lehendakaria den Yolanda Barcina.

### ALKOHOLEMIA KONTROLEI BURUZKO IRITZI TXARRA

Alkatearen ustez, «eskertzekoak diren lasaitasuna, alaitasuna eta normaltasuna» gailendu diren arren, besta hauetan ere egon dira gauza negatiboak. Bere ustez «soberan egon dira Polizia Foralak paratu dituen alkoholemia kontrol batzuk, ala guztiak, izan ere, tematiegi agertu baitira Urdazubiko herritarren etxetara ailegatzeko bidegurutze eta bide ezberdinetan».



ARGAZKIA: IÑIGO IMAZ

### ‘No es un día cualquiera’ irratsaioa plazan

Ekainaren 7an eta 8an, duela hiru urte bezala, Radio Nacional de Españak irratsaioa eskaini zuen zuzenean Urdazubitik. Goizeko 8etan hasi eta 13:00etan amaitzen zen programa ikustera gerturatu zirenekin, herriko plaza jendez gainezka egon zen. Pepa Fernandez kazetariak gidatzen duen programan Santiago Villares alkateak parte hartu zuen herriari buruzko zonbait gauza kontatzeko. Herriko kale eta ostatueta ikusi ahal izan ziren besteak beste Rosana abeslaria eta Jose Maria Iñigo kazetari ospetsua.

**JATETKEA-ERRETEGIA**  
**MONTXO**  
**OSTATUA-TABERNA-DENDA**

Egunero irekia  
 09:00etatik  
 02:30era

Dantxarinetatik  
 2 km. tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK  
 MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK  
 ESPEZIALITAT AKKAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039  
 montxoblanc@gmail.com

**VENTA PEIO**  
 T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bere (Administratiboa) 30700 BORDA • Zerbitzaria 30712 URDAGIA • Bordin 30700 BORDA • Lurralde 30800 LLEONEN

VENTA PEIO



KULTURA → EKAINAREN 15EAN

# Zazpiak Bat dantza elkarteak Kabalkada bat nahi luke muntatu

Heldu den urte bukaeran eginen litzateke eta dantzari, kantari eta antzerkilariak behar dituzte proiektua burutzeko

**Joana GERENDIAIN**

Zazpiak Bat dantza elkarteak nahi luke kabalkada bat muntatu 2015eko urte bukaerako eta proiektua burutzeko dantzari, kantari eta antzerkilariak behar dituzte.

